



- **Amaia Tello** «Gerra garaian agitazioa izan zen nire lana eta egitekoa betetzen nuen»
- **Hizkuntza kudeaketa** Prentsaurrekoetan euskaraz egitea eramanezina da oraindik
- **Jose Eugenio Azpiroz**, PP «Prozesu hau berria da, sentiberak izan behar dugu, eboluzioaren arabera»
- **Idoia Zabaleta**, dantza garaikideaz «1980ko hamarkadan eskaintza aurreratuagoa eta ausartagoa zen»



Hondakin erradioaktiboak
Alfonbrapean
ezkututzen ari garen
pozoia

Hilero dokumental bat proiektatuko da Euskal Herriko taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegietan, guztiak euskaraz edo euskarazko azpidatziekin.

Anima zaitez zure herrian antolatza!

Doako proiektua da

☎ 943 37 15 45 · sustapena@argia.com

**Dagoeneko
proiektuarekin bat
egin duten elkarteak:**

- Bilboko Kafe Antzokia
- Arrasateko AED elkarte
- Urretxu-Zumarragako Gaztelekua
- Hernaniko Zumitza Taberna
- Zornotzako Barnetegia
- Maizpide Lazkaoko Barnetegia
- Lasarteko Jalgi Kafe Antzokia
- Getaiko Gaztetxia
- Zestoako Kultur Etxea
- Gabiriako Kultur Etxea
- Azpeitiko Sanagustin Kulturgunea
- Bilboko Kabia Kultur Elkargunea
- Goierriko Goiztiri AEK Euskaltegia
- Añorga Kultur eta Kirol Elkarte



Hilabete honetan ikusgai

Bidaia intimoak

Lau lagunek euskara ikasteko hartutako erabakiaz eta honek beren bizitzetan izan duen eraginaz egindako filma.


Jon Maia zuzendari,
Eriz Zapirain zuzendariaren albokoa.

✳ Bertaratuentzat
eskaintza bereziak
ARGIaren eskutik

**SARRERA
doan**

Datozen emanaldiak

- Oroitarria
- Lucio
- Sahara marathon





Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskutina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iarnetza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaila Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



GIPUZKOA
zurekin, aurrera»



**gizarte
kutxa**
zugandik zuguera



• **NON ZER** •

2011ko abenduaren 11, 2.302. zenbakia

Deabruaren abokatua

- **Juan Martin Elexpuru:** «Arkeometria laborategi on batek goiz batean erabakiko luke Veleia auzia».

ARITZ GALARRAGA / 4

Asteko gaia

- **Hondakin erradioaktiboak.** Milaka milioi urtez biziko den pozoia suntsiezin hori.

JOXERRA AIZPURUA, GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 5

Pertsonaia

- **Amaia Tello:** «Gerra sasoi hura izan da nire biziko sasoirik ederrena». MIEL A. ELUSTONDO / 10

Iritziak

- **Ttakun (h)errenka** Aspirazio. UXUE APAOLAZA / 16
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 17
- **Mamuak.** AITOR ZABALETA / 18
- **Txandan** Peri Fera. JOXERRA GARZIA / 18
- **Antzerki biluzia.** JOXEMARI CARRERE / 19
- **Hiruko txikian** Esku ezker. JOXEMARI OSTOLAZA / 19
- **Zirtak** Gottland. JULEN GABIRIA / 20
- **Bertso berriak** Lagun ezkutua. MIREN AMURIZA / 22

Erdiko kaiera

- **Idoia Zabaleta:** «Euskal Herrian dantza garaikidearen programazioa txarra eta murrizta da». MYRIAM GARZIA / 23
- **Liburuak** IGOR ESTANKONA / 28
- **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 29
- **Ezpalak** JON TORNER / 30
- **Abarrak** GORKA BEREZIARTUA / 31
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32
- **Ihesi Aramaio (Araba).** Hosto itsasoan igeri. GORKA AZKARATE / 34
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 38
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 39
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 40

Termometroa

- **José Eugenio Azpiroz:** «Prozesu politiko bat ezin da gaurtik biharamunera gauzatu». MIKEL ASURMENDI / 41
- **ETAren amaiera.**
 - **Urki lastana.** BINGEN ZUPIRIA / 44
 - **Bakea nola eraikitzen den.** LAURA MINTEGI / 45
- **Hizkuntza kudeaketa prentsaurrekoetan.** Norbaitek gatzelaniaz adierazpenik behar? ZIHARA ENBEITA / 46
- **Bero-beroan** ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 48

Azkena

- **AAA (H).** ITXARO BORDA / 50



“Arkeometria laborategi on batek goiz batean erabakiko luke Veleia auzia”

Juan Martin Elexpuru I
Filologian dotore

GIIVRII ATA SVTAN SIIR'A ANA,
SAN TV ISAN BII TI SIIVRII ISIINA IITOR

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Veleiako idazkunak egiazkoak dira. Sinetsi nahi nizuke.

Faltsutzaileak EHUko katedratiko guztiek batera baino gehiago jakin beharko zuen latinez, euskara zaharraz, egiptologiaz. Bueno, agian ez da hain zaila.

Fede kontua da edo ziurtasun zientifikoa?

Nik fedea aspaldi galdu nuen, gaia zientifikoa da guztiz.

Baina, egiazkoak diren ziurtasunak daude ala egiazkoak izan daitezkeenaren usteak?

Egiatzkoak dira gure ustez, baina humanitate zientziak ez dira aski dagoeneko eta laborategiek dute azken hitza.

Aurkitzaileek ere ez dute egun aurkikuntza defendatzen...

Hori esan dizuna, gezurtiaz gain, tontoa da.

Juan Martin Elexpuru ikusten dut nik kausa defendatzaile nagusi.

Eta Orpustan, Txillardegi, Luis Mari Mujika, Hector Iglesias... 2.300 sinadura entregatu dira. Hamazazpi txosten mardul daude bederatzi naziotako ikerlariek sinatuta. Harris, Fritz, Frank, Colmenero...

Prozesuan gauzak gaizki egin direla ezin uka. Horrek ez du aurkikuntza baliogabetzen?

Zein erraza den boteretik difamatzea! Bezeran Eliseo eta Idoia Arabako arkeologo onenak ziren, bihamumenean txarrenak eta gainera iruzurtiak.

Ez da hain zaila iruzurra egitea ere.

400 pieza gai eta hizkuntza ezberdinetakoak, garaiko materialetan, zahar itxura perfektuaz... Ezinezkoa. Talde handia eta milioiak beharko lirakeke. Eta zertarako?

Arkeologo profesionalak eta masajistik aritu ziren arakatzan.

Eta ikasleak eta harri-jasotzaileak eta era guztietako boluntarioak, munduko indusketa guztietan bezala.

Ez da jarri notizia, ikuskizuna, ikerketaren aurretik?

Bai, EHUk eta Diputazioak dena faltsutzat jo eta arkeologoak heriotza zibilera kondenatu dituenan, gauzak behar bezala ikertu gabe.

Zerk bultzatu zintuen aferan buru-belarri sartzea?

Bidegabekeria usaina hartu nion erabakiari, eta ostraken argazkiak ikusi nituenan susmoak baieztatu nituen. Gutxitan izan ditut gauzak hain argi.

Eta ezin itxi eztabaida...

Egiak bere bidea egingo du, espero dezagun. Arkeometria laborategi on batek goiz batean erabakiko luke auzia.

Hara.

Problema da nola geratuko diren gure unibertsitatea eta katedratikoak, benetakoak direla frogatzen den egunean. ■



Hondakin erradioaktiboak

Milaka milioi urtez biziko den pozo suntsiezin hori

Lurra eratuz geroztik naturalki sortzen den erradioaktibitatearekin orekan bizi izan gara. Aspaldion sortzen ari garen erradiazio artifizialak, ordea, desoreka larria ekar lezake betiko. Oraingoz, arriskua ekiditeko sistema seguruagoak iragarri badira ere, hondakinak alfonbrapean ezkutatu besterik ez gara egiten ari.

JOXERRA AIZPURUA

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

HORIZONTEAN erronka latzak ditu egungo gizarteak, ingurumenaren zaintzari dagokionez; ederki kostata bada ere, noizbait zentzuz bideratu beharko dituen arazoak dira guztiak, mundua lehertuko ez badu behintzat: berotegi-efektua, ozono-zuloa, hondakinen kudeaketa...

Zerrendatutako arazook gainditzeko sistematik urrun gaude oraindik, eta kalteak dagoeneko ere hortxe daude, baina atzerazienaren mugetara ez gara artean heldu. Bada konponbiderik –edo antzekorik– horretara jarrita.

GREENPEACE



Greenpeaceko aktibistak nuklearraren kontrako protesta batean.

Erradioaktibitate mailak

Erradioaktibitate txikiko hondakinak.

Ospitaletan eta industrian sortzen dira eta manipulazioan nahiz garraioan ez da neurri berezirik hartzen. Erabili ondoren trinkotu edo konpaktatu egiten dira, edota erre, errauskailutan. Hondakin erradioaktiboek %90 okupatzen dute bolumenari dagokionez, baina isuri erradioaktibo osoaren %1 besterik ez dute sortzen.



Erradioaktibitate ertainekoak. Hondakinok manipulatzekoan babes berezia behar izaten da. Zentraletan zaharkituta geratu diren materialak izan ohi dira normalean. Bolumenari dagokionez, hondakin erradioaktiboek %7 dira, eta isuritako erradioaktibitate totalaren %4.

Erradioaktibitate handikoak. Erreaktore nuklearretan erabiltzen den erregaiak eta honen prozesaketatik sortutako elementuek osatzen dute multzo hau. Bolumenari dagokionez hondakin nuklear guztien %3 baino ez badira ere, isuri erradioaktiboek %95aren erantzuleak dira. Uranioa zentralletako erregai bihurtzeko prozesuan hasien da erradioaktibitate maila handitzen eta zenbait elementuren kasuan milaka milioi urte behar dira erradioaktibitatea agortzeko.

Energia nuklearra, aldiz, sortze beretik doa norantza bakarreko ildoan, zentralen funtzionamendutik ondorioztatzen diren egoerak nahiz hondakinek ez baitute itzulbiderik. Gure artean geldituko dira, betiko esan liteke, zenbaitzuk (uranio 238k, kasura) milaka milioi urte behar baitituzte itzaltzeko. Zentral nuklearrek sortzen dituzten hondakin erradioaktiboak ez dira inoiz hondakin hilak, birziklagarriak, arriskurik gabeak, desegingarriak edo dena delakoak izango, nuklearraren lobbyak darabilen hizkera anbiguoak hori iradoki nahi badigu ere.

Hondakin erradioaktiboa gure bizitzari bateraezina zaion material bizia da. Eta askotxo pilatu dugu dagoeneko, Bigarren Mundu Gerraz geroztik. Ondoko koadroetan ageri dira horien zenbatekoak eta ezaugarriak, baita gobernuak indarrean dituzten politiken nondik norakoak ere. Hondakin erradioaktiboak kudeatzeko, orain arte aplikatu izan diren neurrien arteak

Estatua	Hondakinen kudeaketarako politika nagusia
AEB	Lurrazpiko gordailuetan metatzea.
Alemania	Birprozesatzea eta lurrazpian gordetzea. Metaketa geologikoa Gorleben-en, 2025etik aurrera.
Belgika	Birprozesatzea. 2035ean biltegia eraikitzen hasteko asmoa.
Erresuma Batua	Birprozesatzea. Lurrazpiko gordelekuaren bila ari dira.
Errusia	Birprozesatzea. Biltegi geologikoaren bila ari dira Kola penintsulan.
Espainia	Gordailuetan metatzea. Lurrazpiko gordailuaren bila ari dira.
Finlandia	Gordailuetan metatzea. 1995az geroztik lurrazpiko biltegia bilatzen ari dira.
Frantzia	Lurrazpiko laborategietan birprozesatzea. 2006an metaketa geologikoen aldeko hautua egin zuen parlamentuak.
Hego Korea	Gordailuetan metatzea.
India	Birprozesatzea. Biltegi geologikoaren bila ari dira.
Japonia	Birprozesatzea.
Kanada	Gordailuetan metatzea. Lurrazpiko gordelekuaren aldeko erabakia hartu dute.
Suedia	Gordailuetan biltzea.
Suitza	Birprozesatzea. Lurrazpiko gordelekuaren bila ari dira.
Txina	Birprozesatzea. 2020rako gordelekua aukeratuko da.

‘estetikoena’ hobetsi da segurtasunaren izenean: hondakinok begien bistatik kentzea; alegia, 5.000 metro sakon diren zuloetan lurperatzea. Metatze geologikoa deitu diote sistemari.


Horren aldeko erabakia hartu dute estatu gehienek. Hemendik hogeitaz urtera, beraz —oraindik proba eta doitze ugari behar omen du sistema honek—, granitozko harkaitzen muineraino egindako zulo estuetan pilatu eta ezkutatu dituzte hondakin-bidoiak, bata bestearen gainean, lurrazpiketik 1.000 metroko sakonerara heltzen direneino —ikus 7. orriko grafikoa—.

Sistematik seguruaren bila

Zer ote da, ordea, segurtasuna, kasu honetan? Segurua da sistema ala, konparazioan, gainerako metaketa sistemak baino seguruagoa? Ziur al gaude zulatzea erabaki den tokietan ez dela, demagun, alimaleko lurrikara gertatuko? Eta hala gertatuko balitz, ziur geundeke granitozko

Hondakin nuklearren pilaketa munduan

Birprozesatuta ere, hondakin nuklearrak pilatu besterik ez dira egiten azkenetarako. Egungo biltegiek aurki gainezka egingo dutenez, irtenbideak aztertzen ari dira. Oro har, metatze geologikoaren alde egin dute estatu gehienek.



Metaketa geologikoa

5.000 metroraingoko 50 cm-ko zuloak egin eta 1.500eko sakoneraraino hondakinez betetzea proposatzen du sistema honek. Paraleloan hainbat zulo egin daitezkeela diote ingeniariak, beti ere lurrazpian dagoen harkaitza granitozkoa baldin bada. Nagusitu den proposamen honek, dena den, lan ederrak ditu hainbat galderari erantzuteko. Lurrikara gertatuz gero, esaterako, biltegiok nola deformatuko ote lirakeen ez dute arloan azaldu. Eta ur edangarrien zirkulazioari ere nola eragingo liokeen ongi zehaztu beharra dago, sorpresazko kutsadurarik gerta ez dadin.

Estatu gehienek 2020-2030erako agindu dituzte biltegi geologikoak. Bitartean, ikerketan darraite, zuloon segurtasun gorenaren bila.

harkaitza pitzaezina dela, ezuste katastrofikoetan ere txikiezina eta iragazgaitza? Ez dago ziurtasunik, berretsiko digute zintzoki ingeniariak, baina isuri erradioaktiboa nekez, benetan nekez, gerta litekeela argudiatuko. Fukushima emango digu lezioa berriz ere, han ere ia ezinezkoa baitzen hainbesteko tsunamia gertatzea, horregatik errefusatu omen ziren neurri seguruagoak...

Horren haritik, energia nuklearrari hesia jartzen hasiak dira zenbait tokitan. Duela gutxi eginiko galdeketa, 25 milioi italiarrek (boto-emaleen %94) ezezko biribila eman zioten Berlusconi bultzatu nahi izan zuen apustu nuklearrari. Alemaniak, herri mugimenduek estututa, energia nuklearra hamar urteren bueltan (2022) baztertuko duela agindu du, eta argi-indarraren %40 berdea izango



Fukushima, Japonia

2011ko martxoan, zentral nuklearreko sei errektoretik hiru hondatu ziren lurrikararen eta atzetik heldutako tsunamiaren ondorioz. Material erradioaktiboa plantatik 200 miliatara ere heldu zen. Ingurumenari egiazki eginiko kaltea sekretupean da oraindik.



Txernobil, Ukraina

Zentraleko istripuaren ondorioz (1986ko apirila) Nagasaki eta Hiroshimako bonbek baino 100 aldiz erradiazio handiagoa askatu zen. 6 milioi lagun erradiatu zituela estimatzen da. Zuzenean eragindako heriotzak 4.000ko kopuruan finkatu badira ere, 93.000ra ere hel daitezke.



Mailuu-Suu, Kirgizistan

Munduko tokirik poluituenetako, goi mailako material erradioaktiboa prozesatzearen eta pilatzearen ondorioz (1,96 milioi metro kubiko daude gordeta mehategietan). Arrisku sismiko handiko tokia da, bestalde.



Semipalatinsk, Kazakhstan

Sobiet Batasunaren poligono militarra izan zen. Munduan leherketa nuklear gehien jasan duen tokia da. 1949an zartatu zuten lehen bonba eta 1989ra bitartean 456 proba egin ziren bertan.



Siberia, Errusia

Zuritasun ederraren pean hondakin kimikoen erresuma ezkutatzen dela dirudi. Hondakin nuklear likidoak itxi gabeko pisinetan gordetzen dira eta 125.000 tona hondakin solido ere bertan pilatzen dira lurrazpiratu gabe.

Bazterrean utzitako lau ideia zoro

Hondakin erradioaktiboak kudeatu beharrak imajinazio handia eskatu die ingeniariari, urtetan. Hona hemen aztertutako (eta bertan behera utzitako) lau proiektu.

Espaziora bidaltzea. NASA agentziak hainbat hipotesi landu zituen 1977az geroztik. Besteak beste, hondakinak Lurraren orbitan betiko uztea, ilargiko kraterren batean lurperatzea, Artizarren eta Lurraren arteko punturen batean lagatzea edota Eguzkira igortzea. Hipotesi bakoitzak, ordea, 'baina' esanguratsu ugari zekarren atzetik. Adibidez, AEBetan, 2003 urtera bitarteko epeari dagokionez, zentral nuklearretan pilatutako hondakinak espazioratzeko 750 hegaldi behar-ko ziratekeen, eta beste 104, armadak sortutakoak kanporatzeko. Gainera, kilo bat hondakin paketatzeak 50 kilo material erantsi eskatuko luke, arriskuak ekidite aldera. 1986an Challenger espazio-ontziari gertatutako istripuak eman zion amaiera ikerketa lerro honi.


Bitrifikatuz, lehergailu atomiko bilakatzea. Hondakin nuklearrak bonba nuklear bat prestatu, lurpeko harkaitz baten erdiraino jaitsi eta leherraraztea zen plana. Harkaitza hein handi batean urtu egingo litzateke, likidotu, eta hoztu ahala solidotzerakoan, elementu erradioaktibo guztiak harrapatuko litzuke bere baitan. Hipotesi hau 1996an baztertu

zen, munduan saio nuklear oro gelditzeko sinatutako hitzarmenari esker.

Hego Poloko izotzen azpian lurperatzea. Hipotesi honen arabera, izotzak berak babestuko litzuke elementu erradioaktiboak —urteotako berotegi efektua ez zitzaien burutik pasatu ere egin—. Antartika babes-teko hitzarmenak galarazi zien plana, 1959an sinatu zenean.

Subdukzio eremuan kokatzea. Uste denez, itsas hondoko sedimentuek txirristatik behera balihoazte beza-

la bidaiatzen dute Lurraren muinerantz, plaken artean daudenean. Alegia, hondakin nuklearrak plaka horietako baten ertzean jarrita, sabeleraino irentsiko litzuke Lurrak. Hipotesia frogatzeko, azterketa ugari egin zituzten mundu osoan eta gehienetan arazoa bat eta bera zen: subdukzio eremuetan jarduera bolkaniko ugari izaten denez, sumendiren bat lehertzean kraterretatik aterako litzatekeena hondakin nuklear hori bera izan zitekeen lasai asko.





Sellafield, Errusuma Batua

Hasiera batean bonba nuklearretarako plutonioa fabrikatzen zen bertan. Ehunka istripu gertatu ziren lehen urte horietan eta milioika litro material erradioaktibo isuri dira itsasora (mendebaldeko kostaldean).



Mayak, Errusia

Ipar-ekialdeko industria gunea. Bertan zegoen planta nuklearrean istripu latza gertatu zen 1957an. 100 tona hondakin erradioaktibo askatu ziren eta Karachay lakua pozoitu zuen. 80etako hamarkadara arte isilpean gorde zuten katastrofea.

Munduko 10 toki erradioaktiboenak



Somaliako kostaldea

Somaliako urek hondakin ugari hartu izan dute urtetan. Besteak beste, 600 kupel material erradioaktibo eta ospitaletako hondakinak.



Mediterraneoa

Sarritan leporatu izan zaio italiar mafiako Ndrangheta sindikatuari itsasoa biltegi bilakatu izana. 1994az geroztik, urotan hondakin toxikoz betetako 40 ontzi desagertu direla aipatzen da.



Hanford, AEB

Washingtonen gunea honetan egin zen besteak beste, Fat Man, Nagasakin jaurtikitako bonba atomikoa. Estatuko hondakin erradioaktiboen bi heren pilatzen dira bertan: 53 milioi galoi hondakin likido eta 25 milioi oin kubiko hondakin solido. Lurrazpiko urak ere poluituta daude.

dela iragarri. Suitzak ere ez du parke nuklearra berrituko eta 2034rako aurreikusi du itxiera. Belgikak beste horrenbeste...

Potentzia nuklear handien urratsak falta, ordea. AEBek eta Errusiak isilik darraite. Japonian, geldirik dauden hogeitik gora zentral berriz ere martxan jartzeko prestatzen ari dira. Frantzia, berriz, datorren urteko hauteskunde presidentzialetako gai izarra bilakatu dela dirudi. Sarkozy jaunak kandelan garaira itzuli nahi duela edota CO₂ isurketaz poluzioa handitu nahi duela leporatu dio erasokor Hollanderi, hau, epel eta herabe, datozen hamarkadetan nuklearraren alternatiba bilatzen saiatu beharko litzatekeela aipatzen ausartu delako. Horixe da panorama Europako estaturik nuklearranean, energia eta teknologia nuklearrak mundu osora esportatzeaz batera, egundoko inbertsioak eta milioika

lanpostu industria horretatik zintzilik dituen honetan.

Esanguratsua, halaber, *Science et Vie* bezalako aldizkari zientifikoetatik iradoki berri dutena: energia nuklear segururik izan badela; motz esanda, aski litzatekeela uranioaren ordeztorioa erabiltzea, eta orain 50 urte baztertutako teknologiarik hiltzea, istripuak ekiditeko. Material honek ere hondakin erradioaktiboak sortzen dituela nabarmentzea ahanzi zaie, ordea. Ahanzi edo hizki txikietan esateko utzi...

Izan ere, lobbyak ez du etsiko. Medio guztiak darabiltza, Fukushima hekatonbearen ostean ere, dirdiratsu agertzeko. Horretarako, milaka milioi urtez kutsatuko duen pozoia, besterik egin ezean, alfonbrapen ezkutatu besterik egingo ez badu ere. ■



Galdakao

Liburu azoka abenduaren 16tik 21era, Mugurun

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Amaia Tello

«Gerra sasoi hura izan da nire biziko aldirik ederrena!»

2008ko apirilaren 14a Irunen. Espainiako Errepublikaren Egunaren ospakizunak. Ereserkia jotzen ari da Hiriko Banda. Bandera jaso du emakume zahartuak. Amaia Tello da, Tellito, Tellin... Espainiako Gerra Zibilaren garaian.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Zaldi Ero

...

Elkarrizketa niri, eta zer dela eta?

Delako Tellito hura, bada.

Bai, Tellito esaten zidaten! Egunotan amets egin dut garai hura. Hain zuzen. Gerra, frontea, nazioarteko brigadak... Amets egin dut. Eta ez dira amesgaizto izan. Batzuetan izaten ditut bestelakoak ere, jakina. Ez dakit ausarta naizen, baina koldarra ez naiz, horretan ez izan dudarik! Ni aurrera begira beti. Semeak esaten dit Juan Beldurgabearen emakume bertsioa naizela, baina hori ere ez da, beldurra bizi izan dut, galanki. Hala ere, kontra egin behar izan zenean, kontra egin behar izan zen, beldurrez, eta beldurrik gabe!

Zuk kontra egin behar izan zenuen, Francoren altxamenduak gerra ekarri zuen.

Beti esan ohi dudana esango dizut: nire biziko garai ederrena izan zen gerra sasoi, gertatuak gertatu! Hango solidaritatea. Entusiasta eta eskuzabalak ginen. Eta idealista, dudarik gabe, mundu hobearen ginen amets.

Gerra aurreko garaia nolakoa zen?

Oraingoa bezalakoa. Bereizitasunik ez. Ez dakit, bada. Errepresioa bizi izan genuen, gizarte borroka... Gaztetatik ikusi nuen hori, borrokan sartua, gerrako frontean 16 urteko neska gaztea nintzela. Eta ni bezala, beste jende asko. Jakina, beste asko ez ziren gure borrokan sartu, beraiean baizik: faxistak ziren, eskuinak. Ni, aldiz, buru-belarri sartu nintzen borrokan, gerran. Aurretik, berriz,

sindikatuak nintzen. 1920an jaio nintzen, eta 14 urte bete orduko lanean nintzen, gutxieneko adina betetik.

Madriren sortu zinen.

Bai, Cuatro Caminos izeneko auzoan. Garrantzi handiko lekua. Langile auzoa. Madriren bertan lan egiten genuen, hainbat lekutan. Nik, esaterako, Alcalá kalean egiten nuen lan, 16. zenbakian, elizaren kontra. Jostundegian. Nagusia sozialista zen. Margarita Nelkenek eraman ninduen hara. Konponketa tailerra zen, batik bat. Hiruzpalau neska ginen han, ikastuna nintzen ni. Aitak Nelken ezagutzen zuen, nonbait, eta halaxe sartu nintzen han lanean. Nelken, Errepublika garaian Espetxe Zuzendari Nagusia izan zen Espainian. Ez zen edonor. Gure sasoiaren neska gazteek lan egiten zuten, metroan, telefono kon-

Nortasun agiria

Palmira Julia Tello Landeta (Madril, 1920). Euskalduna zuen aitaita, Bizkaikoa, Arrigorriagako Buia auzokoa. Gerra garaian mitinlari nabarmendu zen. "Orain ere egingo nuke nik mitina. Giroa zertan den ikusi behar!". Gerra ostean, ihesi joan behar izan zuen. Zaragozan ezagutu zuen senarra, Ziriako Parraga margolari bilbotarra, eta Bilbon bizi izan ziren hura hil zen arte. Ondoren, Madril ondoko El Casar-era jo zuen, semearen albora. Aitzakiarik ez du beraren lekukotasunak. Kopla gutxi Tellitori.





painian... Lanean hasi eta berehala, sindikatu nintzen.

Zergatik?

Nik neure ideiak nituen, eta familiarenak. Etxean ezkerrekoak ziren. Lan egin behar zen, eta, lehenago, sindikatu. Aitaita Gallartako meategietan lan egindakoa zen. Lazaro Landeta Iturrizar, Buian sortua, Arrigorriagan. Ez zen oso gizon buruargia. Amama zen han argia! Tomasa. Soriakoa zen, nekezaria. Langilea bai, aitaita! Amamak ez zekien eskribitzen, baina bai leitzen. Madrilen, aitaitak farmazia gisako batean lan egin zuen, Langile Mutualitatea zuen izena. Morroia zen han. Amonaren aldeko familia, haren nebak, jende ongi hezia zen, diruduna, eta ezkerrekoa.

Conesa

"Gerra aurretik sozialisten artekoa zen, sozialisten elkarteetan ibilia. Gerra ondoren, Francoren aldekoekin bat egin eta haien faboretan erabili zuen informazioa. Haren ehiza! Hark harrapatu izan banindu, akabo!".

1936.

Irailean betetzen ditut urteak. 15 urte nituen. Aurretik borroka giroa zen nagusi. Bateko manifestazioak, Maiatzaren Leheneko agerraldiak... Giro zen, bada! Igandeetan Manzanares ibaira joaten ginen, txangoan, hala sozialistak nola komunistak, eta behin baino gehiagotan agertu ziren han faxistak, xextra eta sesioan. Eta istilu gorriak izan ziren. Rico izeneko neskatila bat hil zutela daukat gogoa, esaterako. Giro horretatik etorri zen gerra. Ez zen debalde etorri! Fronte Popularrak hauteskundeak irabazi zituenean, kito. Gerra!

Nola izan zenuen gerraren berri?

Jakingo ez nuen, bada! Gazteria Sozialistan ari nintzen lanean, banekien zertan zen egoera. Lehenengo, Gazteria Komunistakoa nintzen. Gerra baino lehentxeago, bat egin zuten bi gazteriek, komunistek eta sozialistek. Eta gero, gerra. Kito lana orduan. Hura zalaparta! Mugimendu antifaxista eratuta zegoen ordu-rako. Beraiek altxatu ziren, ez gu, eta beraz, guk erreakzionatu egin genuen, geure buruen defentsan.

Parte hartu zenuen defentsa horretan.

Bai. Lehenengo, mendian, Madrilgo mendialdean. Neba, esaterako, mendian hil zitzaidan, borrokan, gatazka hasi eta hamar egunera.

Lazaroren atarramendua

“Gure amamaren aitaita Lazarok nekez ikasi zuen gaztelaniaz. Buiatik Enkarterrietara joan, mea lanean, eta lana besterik ez. Ez zuen gaztelaniaz ikasi; ondo ez, behintzat. Gero berriz, handik Madrilera etorri, euskara ere herdoildua ordurako, gaztelaniaz nekez. Ez zuen buruargi itxurarik. Meategian ere istripuren bat izana zen, eta ahal zuen hartan lan egiten zuela bizi izan zen”.

Eraitsi egin zuten! Gazteekin zen mendian, frontean, eta usteko zuen berak bakarrik eraitsiko zituela faxista denak. Eta jakina, bera eraitsi zuten. Jaitsi zuten, baina ospitalean hil zen, zauri larrien ondorioz.

Mitinlari nabarmendu zinen. *Estampa* aldizkariaren azken alean, azalekoa zara.

Cuatro Caminoseko Antolakuntza eta Propaganda idazkaria nintzen, eta mitinak egitea zegoikidan. Puerta del Sol-en ere eginda nago ni mitina. Bat-bateko mitinak. Bakarrik joaten nintzen, hasten nintzen mitinean eta hantxe edukitzen nuen jendea. Inork ez zuen alde egiten! Sena nuen. Banekien jendea nola hitz egin behar zitzaion. Usain hartzen nion giroari. Eta, badiotsut, jendea ez zitzaidan joaten. Hantxe denak. Gainera, gaztea nintzen, oso. Leku askotan egin nituen mitinak. Joaten nintzen, hona edo hara igo eta hasten nintzen. Lotsagabea behar du, gero!

Zer esaten zenuen?

Madrid defendatu behar genuela. Faxistak zer eta nor ziren... Esplikazio handiak. Agitazioa zen nire lana, eta egitekoa betetzen nuen. Madrid utzi behar izan nuenean, Valentzian ere jardun nuen, eta nazioarteko brigadekin. Gauza asko urte gutxian. Oso bizitza mugitua, gaztea ere banintzen-eta. Ez nintzen bakarra, gazteen artean gehiago ere baziren gisako lanean, baina ni bezain bero, gutxi, edo inor ez! Neu nintzen suharren jarduten

zuen. Ez nintzen ergelkeriarik esaten ibiltzen, edo epelkeriatan. Ez. Banekien zer esan behar nuen, eta esaten nuen. Eta jendea ez zen haserre. Herrietara ere joaten nintzen, kamioi baten gainean, eta emakumeak hantxe, niri entzuten. Nik esaten nien haien semeak behar genituela gerrarako. Semeen eske joaten nintzaion. Bada, hala ere, inoiz inork ez zidan eraso, kontra egin.

Ekutuan bizi behar izan zenuen.

Hasieran ez. Hasieran Madrildik alde egitea erabaki nuen, bertan geratzen banintzen akabatu egingo nindutela gauza jakina zen-eta. Neska batek abisu eman zidanean, martxa egin nuen hemendik. Valentziara joan nintzen lehenengo, eta bueltan etorri nintzen gero, 1939an. Banituen lagunak hemen, jakina, eta behin, batek ikusi ninduen, lanetik bueltan kale artetik zeharka nindoala; pentsatu ere ez, sasoi bateko bidetik Cuatro Caminosea joatea. Tira, bada, egun batean, lagun batek ikusi nau eta: “Baina, Tello, hemen hago? Goizean atxilo hartu naiten, eta hire berri badudan galdetu zidaten!”. Handik atzera, etxetik alde egin behar nuela konturatu nintzen. Amamak Vallecasera eraman ninduen, lagunetara.

Zu ez zintuzten harrapatu. Ordainetan, izebak atxilotu zizkizuten...

Bai. Nire orde! Komisariara eraman zituzten, Antonia eta Margarita Landeta. Ez zuten ezer esan. Osaba bat ere harrapatu zuten, baina ni non nintzen ez zekienez, ezin ezer esan. Ni, bitartean, Zaragozara iritsi nintzen, ihesi, ezkutuan. Conesaren morroiak ibili ziren nire atzetik. Gozoa zen, bada! Asasino hutsa. Hura harakina! Harrapatu izan banindute, gaur ez nengokeen hemen! Nire hainbat kide atxilotu zituzten, eta hil ere bai hamahiru! “Hamahiru larrosak”. Berrogeita hiru gizonekin batera fusilatu zituzten Ekialdeko Hilerriaren hormaren kontra.



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



AZKEN HITZA

91

“Oraingo Madrilek ez du orduko antzik. Kaleak hor dira, bai, oraingoak eta ordukoak, baina zer da bertan? Ez dut inor ezagutzen. Nire kideak hilak dira denak... Nik ere, 91 urte ditut beteak... Hilabete ez dela izan naiz azkena Madrilen, Nazioarteko Brigadak tarteko”.



Amaia Tello, hondoan gaztetako erretratua duela, senar Ziriako Parraga margolariak egina.

Izugarrikeria, gerra.

Eta hala ere, beti esan izan dudana: gertatuak gertatu, gerra sasoi hura izan da nire biziko aldirik ederrena! Idealen jabe ginen, ilusioa genuen. Defentsan ari ginen, ez genuen gerra guk hasi, geure buruen defentsan ari ginen. Errepublikaren alde ari ginen. Propaganda ere ikaragarria zen. Komunistak ginela eta hau eta hura. Horri kontra egiteko, berriz, inor baino errepublikanoago ginen gu!

Franco matxinatu, gerra hasi, agintea hartu, errepresioa, ihesi joan beharra...

Zaragozara joan nintzen ni. Inork ez ninduen ezagutzen han, eta lanean hasi nintzen. Familiak, Madrilen, nire berri ez zuela bizi izan zen luze, hamar urte. Jakin izan balute, ni salatzeria behartuko zituzten. Bitartean, Zaragozan, senarra ezagutu nuen, Ziriako Parraga, margolaria. Nire lagun batek, Mertxe, Bilbotik ezagutzen zuen, berak aurkeztu gintuen. Eta bi aste orduko, etxe berean bizitzen ari ginen.

Zaragozan hartu zenuen izena, Amaia.

Madriletik irten nintzenean hartu nuen. Eta Amaia hartu nuen izena, Dolores Ibarruri-ren alabaren izena zelako. Ez nuen edozein izen hartu! Gainera, izen polita da. Ezagutu

Erretratu eta konposizioak

“Askotan egin zizkidan erretratuak senarrak. Modelo ona gertatu nintzaion. Nik ere ez nion kontra egiten. Erretratua egin behar zidala esaten zuenean, laster esaten nion baietz, pozik. Erakusketak ere egin zituen, eta han ageri zen nire erretratua, eta pozgarri zitzaidan. Harro nengoen. Ondo margotzen zuen, pertsonaren arima erakusten zuen. Erretratuak ere ez ziren, erraza da hori. Harenak konposizioak ziren, erretratu baino areago. Amatasuna, Gerra galdu genuen...”.

ere egin nuen Pasionaria. Haren pasioa mitinetan. “Pasionaria”, bada. Mitinlari aparta zen!

Noiz arte izan zinen Amaia?

Orain arte! Amaia naiz ni oraindik. Ezer sinatu behar dudanean, orduan bai, Julia Tello Landeta naiz, baina gainerakoan, Amaia naiz. Inork ez dit beste izenik ezagutzen. Semeak astea joan eta astea etorri eskolako notak ekartzen zituenean ere, sinatzeko, lehengo eran, nik Amaia Hidalgo sinatzen nuen.

Deitura ere ezkutatu zenuen, beraz.

Bai. Benetako izena ezkutatu behar. 50eko hamarkadan, berriz, nortasun agiria ezarri zutenean, benetako izena jarri nuen. Ordurako giroa ere gozatzen hasita zegoen. Baina gerra ondoan bertan hasi izan balira nortasun agiria eskatzen, ez nuen benetako izenik erabiliko. Ez zait iruditzen. Giroa oso zen latza, eta neure burua babestu beharra neukan.

Zure senarrak ere, erretratugile ospetsua ordurako, kezka izan zuen Francoren erretratua egin behar zuela esan ziotenean.

Haren ingurua aztertuko ote zuten beldurrez. Haren ingurua neu nintzen, jakina! Azkenean, argazkiak eman zizkieten, Francorenak, eta haietatik egin zuen erretratua, ez gogo onez baina! Diru premian ginen. Gero, Bilbora etorri ginenean, besterik izan zen. Niri dagokidanez, beldurrak airean bizi nintzen Madrilen. Gero, nahiko isilpean baina ondo, Zaragozan. Bilbon, orduan eta lasaigo. Inork ez ninduen ezagutzen, bizimodu guztiz normala egin nuen. Ez nuen gandorrik erakusten, jakina, inor nire iragana arakatzan ez hasteko. Bizimodu normala. Margolaria zen, erretratuak egiten zituen... ■



goienakluba

Abantailaz betetako kluba!



Olentzero & CO! Musikaleko **DVD-a** salgai

DVD-aren
prezioa:

14 €

(Bidalketa gastua **barne**)

Goiena Klubeko
kideentzat prezio
berezia:

12 €

(Bidalketa gastua **barne**)

Eskatu eta zure etxeko buzoian jasoko duzu!

943 25 05 05 • kluba@goiena.com

www.goienakluba.com

TTAKUN (H)ERRENKA

Aspirazio

A

urten, gutxi erabakiko gurela inoiz baino argiago izanagatik, edo izateagatik, eta langile identitatetik ari naiz, kasik barregura etorri zait bozkatzeko pausu bakoitzean (korreoz bozkatzan dut), lotsatzen garenean sortzen zaigun algara horrekin, gezurretan harrapatu eta gelatik irten bitarteko antzerkiari behar besteko sinesgarritasunez eusten asmatzen ez dugunetan bezala. Pantailan Madrilgo irudiek JM]ren (Jornada Mundial de la Juventud) reedizio bat ziruditen, eta barregura ematen zuen, Rajoyren saltotoxoak, badakigu gainera datorkiguna, oso ondo ikasten da hori zure lankidea jornada erdian aulkitik altxatu eta irribarretsu etxera/desertura joateko eskatzen diotenean sindikatukoak paperak ondo daudela baieztatzen dion bitartean (eta berriro tekla hotsak), eta datorkiguna PPK egiten badu, berak erabaki duela sinesten errazago egingo zaigu, demokratikoa balitz bezala. Beñat, niri, zuk diotzenaren kontra, ez zait iruditzen ezkerrek diskurtsoarekin asmatu duenik, ez azken legealdietan, ezta kanpainan ere, eta esango nuke ez direla aipatzen zenituen teknokrata liberalak izan Marxen produkzio bideak langileen esku egotearen komenientziari barre egin diotenak.

Berez, hau historia noren arabera mugitzen den ikusteko ere bada, kapitalismoa krisian sumatu baitugu Europari eragin dionean, alegia, kapitalismoak jende asko-asko mantendu du krisian betidanik, baina gu izan ez garen bitartean, “niri ekonomia ez zait interesatzen”, “nik ez dakit ezer ekonomiaz” egin dugu, komeni zitzaigulako.

Zapateroren lehen legealdiari ezkertiarrena irizten dio askok, eta esango nuke akatsa handienak orduantxe egin zirela, ezkerrek, eta Marxi esker, zerbait badu, kapitalismoaren diagnosirako tresnak dira, eta espainiar ezkerrek, baita euskaldunak ere, uko egin dio diagnostikoari krisia gainean izan arte. Eta orain, klase zapalketa inoiz baino

DANI BLANCO



Ixne Apaolaza



Padrón



Sarasola

argiago, nazio ikuspegitik hasi zaizkigu; Grezia, Alemania... eta nazioarteko klub aberatsa ederki, herrialdeen zorraz. Cristina Fernandezek G20aren gailurraren atarian enpresariekin eginiko bilkura batean, elikagaien inguruan, ilustratu zuen ezkerren ezina, “*quién me hubiera visto en época universitaria*” esan ondoren (pena da Cristina itzultzea):

“Herrialdeen gastua kontrolatzera mugatzen badira, baina ez finantza bankuak, kalifikazio agentziak, merkatu mugimenduak...”. Finantza munduak irabaziak ekonomia errealerara itzuli beharra azpimarratu ondoren jarraitu zuen “kontsumo gabe ez dago kapitalismorik”, “proposatzen ari naizena kapitalismoa da, baina kapitalismoa serio, bizi duguna ez baita kapitalismoa, anarko kapitalismo finantziarioa da”. Kapitalismo identifikagarria da nahi dena. Iraultza ondo baitago, gaur egiten bada, baina bitartean zein biografia sakrifikatuko dira erreformismoa (Zapatero aurretik zuen zentzuan) finantza munduak debekatu badu.

Amaiurren Kongresurako lehen proposamena PNV eta Geroa Bairekin elkarlana da, ez da ezker politikak egiteko izango, eta diskurtso dramatiko publiko emozionala ez doa ezker aldetik (zeinak etorkinez hitz egitera eramango lukeen, langile espainiarrak, ez “Euskadi” markaz), beste nonbait baino, denbora bagenu bezala, PSOE ezkerri min handien egin diona da, eta IUK ez dakit narrazio propio bat eraikitzeke asmorik baduen orain bozek mozkorturik.

Eskuina konstatazio bat da, baina badira hitzak, “ezkerra” batez ere, konstatazioaren mundutik atera eta aspirazioenera pasa behar genituzkeenak, orain presio/eragin boteretik batere ez duenean batez ere; inork ez dezala esan ezkertiarra denik, saia dadila izaten, eta esango diogu besteok. Ea norbait agertzen den, eta denok eskale izan aurretik den. ■



Kapitalismoak jende asko mantendu du krisian betidanik, baina gu izan ez garen bitartean, ‘niri ekonomia ez zait interesatzen’ egin dugu, komeni zitzaigulako

GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



Aitor Zabaleta

KAZETARIA

Mamuuak

Mamua, mamua! Horixe esaten etorri zen sukaldera 2 urteko umea. Egongelara hurbildu, eta han zeuden “mamuuak”, hiru kaputxadun telebistako pantailan. Arrazoia daukate adituek, kontu handia eduki behar da haurrek telebistan ikusten dutenarekin, baita babestutako ordutegietan ere. Erne egon behar beti, ez-ustean “mamu” beldurgarriek traumarik sortu ez dezaten.

Bukatu dira ekintza armatuak, eta pentsatu nahi nuke horrekin batera amaitu direla Euskal Herriaren izenean berba egiten duten kaputxadunak.

Ez da nolanahikoa atzean lagatzen duguna. Atentatuak gogorak izan dira, jasangaitzak. Eta beste horrenbeste horiek justifikatzeko irakurri ditugun komunikatuak. Bere burua gudari salbatzailetzat izan dutenen diskurtsoa oso mingarria izan da askotan, etsigarria. Praktika gutxi ez, eta teoria militarra ere sufritu behar izan dugu, eta zelakoa gainera.

Adibideak, ugari. 2000ko abenduan, ETak Paco Cano hil zuen, PPko zinegotzia Bartzelonako Viladecavalls herrian. Igeltseroa zen Cano. Laneko furgonetaren azpian lehergailua zartarazita akabatu zuten.

“Euskal Herriaren zanpatzaile” izatea leporatu zion ETak handik hilabetera argita-



Giza eskubideak ez

ditu ETak bakarrik

urratu, askotan salatu

dugu hori, baina bere

erantzukizuna handia

da, eta ezin dio

horri muzin egin



ratutako komunikatuan. Viladecavalls-eko igeltseroa “Euskal Herriaren zanpatzaile”. Iraingarria, patetikoa.

Eta zenbat horrelako. Zinegotziak, kazetariak, sukaldariak, enpresariak... Denak etsaiak, guztiek hartu zuten hiltzeko zigorra, norbaitzuek hala erabakita, herriaren askapenaren izenean.

“Zanpatzaile”, “trafikatzaile” edo “etsai”, berba krudelak egon dira hildakoentzat. Lehen gutxi ez, eta hitzekin ere sufrimendua tonaka senideentzat. Nola ez ikaratu horrelakoak irakurtzerakoan.

Argi dago aurrera begiratu behar dugula, baina atzora arte bizi izandakoa ahaztu gabe. Giza eskubideak ez dituzte ETak bakarrik urratu, askotan salatu dugu hori, baina bere erantzukizuna handia da, eta ezin dio horri muzin egin.

Aurrera egiteko, kaputxak eta txapelak bateraezinak dira, izua besterik ez du sortzen konbinazio ezin zatarrago horrek.

Urteetan ikusi ditugu kaputxadunak Euskal Herriaren izenean berbetan. Iraganeko irudia behar du izan, eta ez dugu faltan botako.

Frankismoari aurre egiteko sortutakoek mamu beldurgarri eginda bukatu dute, eta ez 2 urteko umearen begietara baka-



TXANDAN

Joxerra Garzia



Pentsamendu laburraz, Donejakue Compostelakoan: gero eta laburragoak dira pentsamendua sortu eta adierazteko epeak eta formatuak. Pentsamendua bera ere ezinbestean laburrago bihurtu behar dugu, hori da kokka.

Pentsatzea, loturak egitea da. Gutako gehienoi ideia original bakarra izan gabe joango zaigu mundualdi hau. Ideia ez originalen arteko hiruzpalau lotura original asmatuz gero, gustura.

Ziztu biziko errepedeak eta trenbideak eraikitzen ari dira, elkarri lotu-lotu eginda nahi bide gaituzte eta. Autoak eta trenak ibiltzen dira errepede-trenbideetan,

Peri Feria

baina bestelako bideak behar dira pertsonon barne munduak eta erreferentziak lotzeko.

Ordubete eskas da, hegazkinez, Donejakueetik Loiura. Kultura galegoari buruzko albisteentzat, ordea, ez dago lekurik hegaldi horietan. Abertzale porrokatu omen garen arren, igerian –edo pateran– egin behar izaten dute gure kulturek handik honako eta hemendik harako bidea.

Naufragio horretan periferiako txikiok gara noski galtzaile. Marcos Lorenzok dioten bezala: “O *coñecemento é unha relación entre diferenzas; ¿a sabedoría entre similitudes?*”. ■



Joxemari Carrere

IPUIN KONTALARIA

Antzerki biluzia

Edozein espazio soil har dezaket eta eszenatoki biluzia dei dezaket. Gizon bat dabil espazio huts horretan beste batek begiratzen duen bitartean, eta hauxe da behar

den guztia antzerki ekintza bat egiteko. Baina antzerkiaz ari garenean, ez dugu zehatz-mehatz hori esan nahi". Hitz horiekin hasten du Peter Brook-ek *Espazio hutsa* bere lan ezaguna. Jakina, hau hasiera besterik ez da, hortik aurrera antzerkigintzaz lezio ederra garatzen du. Orain ordea, gera gaitezen kezka horrekin, alegia, zertaz ari gara antzerkiaz ari garenean? Abia gaitezen soiltasunetik, antzerkigintzaren hutsetik, Xabier Letek eta Eugenio Arozenak Intxixu antzerki taldearentzat idatzitako *Antzerkia deuseztik izatera* hartan hasi ziren gisan. Lan honetan kobazuloetatik egungo gizakiarenganako bidaia egiten da, antzerki adierazpen ezberdinak bidelagun.

Brookek duen antzerki ekintza soil hori agian lotu daiteke kobazuloetako garai haiekin, ezdeus horrekin gizabanakoaren izatearen eta munduaren gaineko gogoe-tak eta kezka azaltzeko nahikoa zute-nean. Historiaren garapenarekin batera antzerkia garatuz joan zen ordea. Espazio huts hura betetzen. Eszenatokia eraikin batez estali zen. Antzokia eraikin dotore bihurtu zen. Eta,



DANI BILANCO

horrekin batera, eszenatokiaren gaineko gizon hark garrantzia galdu zuen edukinon-tziaren alde. Antzerkira joatea espazio batera joatea bihurtu zen. Espazio bete batera, gau-zez bete: "Esan ohi dugu, zinemak antzerkia hiltzen duela, eta esaldi horrekin zinema sortu zeneko antzerkiaz ari gara. Leihatila-dun antzerkia, egongeladuna, ikusleak traba-rik gabe ilara artean pasa dadin besaulki tolesgarriak dituen antzerkia, kandilejak, dekoratu aldaketak, ekitaldi tarteak, musi-ka, definizioz antzerkia hori eta zerbait gehixeago izango balitz bezala".

Badira urte batzuk idazle ingelesak lan ezagun hori argitara eman zuela. Badira urteak ere Lete-Arozena bikoteak ez-deusetik irteteko bidaia eszenikoa propo-satu zuenetik. Krisiaren aurrekontuak osatzen ari diren honetan atzerako bidaia egiten ari dira ere, hutsera, alegia. Antzerkia eszenatoki huts bihurtzen ari da. Erai-kinak hor daude, euren leihatilekin, besaulki tolesgarriekin, oihal eta dekora-tuekin, baina *platearen* erdian jartzen bazara ez duzu taula zeharkatzen ari den gizonaren pausorik entzungo. Ezta *Xele-mon* antzez-jokoa. Antzerkia biluzik sumatuko duzu, antzezleriak kalean baitaude, eraikinetik kanpo hutsaren hurrengoak antzezten. ■



Eraikinak hor daude,
euren leihatilekin, besaulki
tolesgarriekin, oihal eta
dekoratuekin, baina
platearen erdian jartzen
bazara ez duzu taula
zeharkatzen ari den
gizonaren pausorik
entzungo

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



bete baloi egin zuen dena. Zumarragatik gazterik egin zuen Barcelonara ezker besoa berme. Urte andana txapelketak irabaziz, erretirorako prestatu zen literatura-rik gabeko ipuinetako ezkontza hegazkin. Eta hegaldaka aireratu zen artean, arrakasta bila jauzika zebilen pilotu bat sozio. Ordura arte eskuin alde soilki jauzi zutabe zuenak, bestela manciatzeko prestatze lanari ekin zion, bi besoz pelotazoak jotzeko teknika landuz. Bikain ari zen kirol berrian. COI erpin (Nazioarteko Olinpiar Batzordea), gero eta oinarri zabalagoko triangelu erraldoia egituratzen ari zen Ali

Esku ezkerra

Baba eredu. Barcelona nano, New York aukeratu zuen zelaitzat pilotatzen ikasiak, maisua oilar hegalditarako eta lagunarteko partidetarako utziz. Lurreratze gaitza izan du bere hegazkin katxarroak. Diotenez onik atera da istri-putik, baina kaxa beltza du salatari. Ez omen ditu esan-dako bidaia egin, ez omen du gasolinarik ere ordain-du. Gainean dauzka inspektore adituak surtidoreak aztertzen. Eskubaloilari bikaina genuen, gizon ederra telebistan txintxo planta zuena. Ez ditu horiek nahikoak izan bere ezkutuko eroari aurre egiteko, bere urdanga arinari eusteko. Ai Inñaki. ■



ZIRTAK

Julen Galbiza

IDAZLEA

Gottland

Liburu-dendara sartu nintzenean, saltzailea Jonathan Franzen-en *Freedom* ari zitzaion gomendatzen balizko erosle bati, aipatutako liburuaren ale mordo batez eraikitako bi metroko zutabe korintiar baten ondoan. Eszena lizuna iruditu zitzaidan kasik, liburu hiperpromozionatua, saltzailearen adurretan entzutea.

Ez dakit erosleak zer egin zuen, baina nik, askatasunaren zutabe sendo haren ondotik pasatuta, nobedadeen mahaira abiatu eta begietara salto egin zidan lehenengo liburua hartu nuen: *Gottland*, Mariusz Szczygiel poloniarrena. Irakurriko dut noizbait Franzenena ere, baina, zinez, ez dakit zerk bultzatzen gaituen hain modu eraginkorrean Nobela Amerikar Handiaren bila aritzera etengabe, euren kontakizun handia gure kontakizun perfektua balitz bezala. Zergatik onartzen dugun Amerikako Mendebalde Ertaineko familia baten sagari buruzko kontakizuna hain dela unibertuala, ezen gure bizimoduak hornitzeko ere balioko duen. Amorruxka horrek eramango ninduen, ziurrenik, nobedadeen mahaitik izen ahoskaezineko idazle europar baten liburua hartzera, soilik Josef Koudelka argazkilari handiaren azaleko irudi ederrak erakarrita.

Astebete lehenago ETak pertsiara jaitsi zuen eta gure historiaren ditzosozko kontakizunari buruzko bonbardaketa betean bizi ginen, justu *Gottland* erosi, irakurtzen hasi, eta miretsita geratu nintzenean; izan ere, liburu aparta izateaz gain, horixe bera da: kontakizuna, Txekoslovakia zenari buruzkoa, nazismoaren eta komunismoaren ondorioak pairatu zituztenen bizitza txundigarrien bitartez kontatua. Berau irakurrita, garaian garaiko agintariak mota guztietako sortzaile, intelektual eta ekintzaileei jartzen zizkieten oztupoak baino harago, ikaragarriena da ikustea jendeak zelan aldatzen zuen espaloiz estigmatizatu-



INIGO AZKONA


tako pertsona horietako bat eurengana hurbiltzen zenean, eta, gaur egun ere, nola-ko erreparoak dauden lasai hitz egiteko. Ez dakit Txekia eta Eslovakiako historiaren idazketa ofizialerako balioko duen liburu honek, baina nik horrela irudikatzen dut edozein herrialderen historiari buruzko kontakizuna, alde batekoen zein bestekoena kontraesan, beldur, miseria, akats, ilusio, indar, ezinikusi, gaizkiulertu, isiltasun eta aldarri guztiak bilduz, ez soilik zuzeneko biktimen bizipenekin, ez soilik politikaren ikuspuntutik, baizik eta eguneroko bizitzaren gurpiletik.

Euskal Herriari buruzko kontakizun ofiziala ere idazten hasiak egongo dira honezkero, baina, zalantzarik gabe, guk ere geure *Gottland* partikularra behar dugu, gure Euskal Nobela Erraldoia (ENE!), non idatzita utzi beharko bailirateke, azken asteotan Interneten aurkitutako testu pare bat baino ez aipatzearren, Ander Izagirrek bere osaba zaharra zen Juan Alcortari buruz kontatu duena, edo Mikel

Iturriak, Ignasi Alvarezren testu bat erreskatatuz, Eduardo Chillidari buruz plazaratu dituenak. Edo Josu Martinezen dokumentalak, eta beste hainbeste testigantza. Entziklopedia oso bat, atarian pilatu zaigun zaborra, “ipuintxo krudelen bilduma”, Szczygielen liburuaren kontrazalak dioen moduan.

Eta bakoitzak konta dezala bere egiaren partea, denok onartzen dugun bitartean egia ez dela osorik geure jabetzakoa. “Zer da egia, esadazu” dio Lenka Procházková, Jan Procházka idazle jazarriaren alabak: “Guk bizi izan duguna da egia, eta ez norbaitek zenbait urteren ostean esango diguna”. Berandu baino lehen, beraz, norbaitek ekin

beharko dio egia-pusketak lurretik jasotzeari, zaborra biltzen duen kamioia beti ezustean etortzen da eta. ■



irudia:

Antton Olariaga



zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Informazio eguneratua
eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

Izan zaitez
berrialaguna

berria^{info}

Izen-abizenak:

Helbidea:

PK:

Herria:

Kontu zenbakia:

Tel.:

NA:

Posta elektronikoa:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa, beterik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEAren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO TALDEA, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain

Honako ekarpen hau egin nahi dut:
Adierazi X batez zure aukera

☐ Urtean 100 €

Aldi batean ☐

Lau zatitan ☐

☐ Urtean 200 €

Aldi batean ☐

Lau zatitan ☐

☐ Urtean beste kopuru bat: €

Aldi batean ☐

Lau zatitan ☐

100 eurotik beherako kopuruetan
ordainketa aldi batean egingo da

☐ Hilean 10 €

berrialaguna izan nahi baduzu,
bete datuak eta helarazi:

- www.berria.info/berrialaguna
- **Postaz:** BERRIA. Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** laguna@berria.info
- **Telefonoz:** 943-30 43 45

BERTSO BERRIAK

Miren Amuriza

Lagun ezkutua



XDZ

I

Ume ginela dena zen berri,
dena jolas, dena sormen,
asmakizunak jartzen pasatzen
genuen hamaika oren.
Jolas gaitezen neurtzeko gure
gogoa nola dagoen:
nik pistak eman ta zuek sorta
hau irakurri ondoren,
ea igartzen duzuen gure
lagun ezkutua nor den.

II

Polemikari estu loturik
ditu izen-abizenak,
aberriarri eskaintzearren
bere urterik onenak.
Gero espetxera eraman zuen
hogei urteko kondenak,
baina ez dira argigarriak
honaino esandako denak,
euskal herritar asko baitira
hortik pasatu direnak.

III

Kartzeleroak errekontua
egiten ari zirela,
preso bi falta zirela eta
sortu zen nahaste itzela.
Bafle batean ezkutaturik
agurtu zuen kartzela,
geroztik dabil han eta hemen
ifar haizea bezela;
ez da ikusten baina guztiok
dakigu hor dabilela.

IV

Martuteneko presondegitik
ihesean aterata,
patrikan ditu “Inon ere ez”
eta “Edonon”go mapa.
Zer esana ta hitza baditu
nahiz eta ahotsa falta,
baina idaztea ere presente
egoteko era da ta,
“mende oso bat iraganen du
gure alboan koblaka”.

V

Marinel zaharren laguna eta
Ainhoaren zaindaria,
tira ta tira behelainora
eraman zuen haria
aurkitu zuen baina izan zen
Jaurlaritzak ebagia
eta azkenean ridikulua
hain izan zen nabaria,
epaile batek aitortu behar
epaimahai baten saria.

VI

Esandakoak esanda nor den
argi ez ote dago ba?
Beste euskaldun asko bezala
joan zen etxetik kanpora,
horrexegatik ekarri gura
izan dut Sarri gogora.
Berak bezala alde egin zuten
txori guztiak gerora
bueltan etortzen diren eguna
“kolosala izango da”.



DOINUA: Aita izena.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Idoia Zabaleta

«Euskal Herrian dantza garaikidearen programazioa txarra eta murritza da»

Idoia Zabaleta (Gasteiz, 1970). Euskal Herriko dantza garaikidean izen propioarekin distira egiten duen dantzaria dugu, bere lana egiteko Euskal Herrian geratzea erabaki duen dantzari “arraro” horietako bat. Euskal Herrian dantzak bizi duen egoeraz erretratu kritikoa atera digu elkarriketan. Ez da kritika hutsean geratu ordea, aurrera egiteko dauden aukerez ere luze mintzatu da.

MYRIAM GARZIA

Argazkiak: Raul Bogajo / Argazki Press

Biologoa zara, eta dantza munduan ia kasualitatez zaudela esan duzu behin baino gehiagotan. Nolakoa izan zen dantza eta zure arteko topo egite hau?

Nik gimnasia erritmikoa egiten nuen Biologia-ko fakultatean ikasten hasi nintzelarik. Bigarren kurtsoan nengoela Moare Danza elkartearen eskutik Dantza garaikidearen barnean



Dantza Berria ezagutu nuen. *Release* eta inprobisazio teknikak ikasten hasi nintzen, fakultatean fisiologia begetaleko laborategian mikorri-zei buruzko ikerketetan lanean nengoen aldi berean. Ekosistema eta populazio dinamiketan espezializazioa bukatu nuelarik, ingurune akademikotik kanpo ikasten hasia nintzen inprobisazio teknikekin murgiltzea erabaki nuen. Jakin-minak eta iturriak ezagutzeko desirak kanpora eramanez ninduten, kanpora joateko garaia den gatzetasun horretan. Florentzia, Amsterdam eta New York izan ziren bi urtez ikasten jarraitzeko gune aproposak, diru-laguntzei esker. Orain pentsatzen dudalarik, dantzara zein koreografiara hurbiltzeko nire modua, populazio dinamikekin erabat erlazionatua egon da beti, talde baten barneko tentsioak, entzute ahalmena, akzio-erreakzio mekanismoak, ordenaren eta desordenaren arteko kudeaketa...

Bilboko BAD jaialdia eta Donostiako Antzerki FERIA dira egun dantza garaikidea publiko nagusiari heltzeko aukera bakanak?

Ezin da Euskal Herrian dantza garaikideari buruzko programazioaz hitz egin, La Fundición aretoa izendatu gabe. Gaur egun, BAD jaialdiaz gainera, La Fundición, Artiumeko programazio eszenikoa, Leioako aretoaren zein Mugatxoan-en baitan eskaintzen diren proposamenak aipatu behar dira, besteak beste. Bestalde pentsa dezagun 1980ko hamarkadan gaur egun eskaintzen den programazio eszenikoa baino eskaintza aurreratuagoa, dibertsoagoa eta arriskutsuagoa ematen zela, bai dantzan, bai antzerkian. Gaur egun berriz, Euskal Herrian dantza garaikidean egiten den programazioa, oro har, txarra eta murrizta da. Ez dago batere eguneratua. Erabat homogeneousatzailea da, hau da, dantza garaikidearen ikuspegi bakarra eskain-

"Publikoaren asuntoa erabiltzen dute hainbat programatzailek: publikoa prestatua ez dagoela, dantza garaikideak publiko murrizta duela eta abar, beraiekin programazio aspergarriak justifikatzeko. Baina gezurra da"

tzen da, eta gaur egun oso gauza desberdinak egiten ari dira dantzaren izenean. Publikoaren asuntoa erabiltzen dute hainbat programatzailek: publikoa prestatua ez dagoela, dantza garaikideak publiko murrizta duela eta abar, beraiekin programazio aspergarriak justifikatzeko. Baina gezurra da. Publikoaren arazoa orokorra da, antzokietan, zinemetan, liburutegietan... Garai digitalak asko aldatu du pantailarekiko, eszenatokiarekiko, komunikazioarekiko, denborarekiko erlazioa. Izatez, nik esango nuke gaur egun koreografiaren inguruan ari diren sortzaile asko, "paradigma" handi hauen baitan ari direla, publikoari proposamen anitzak eta interesanteak proposatzen.

Eszena garaikidean, lehen esaten genuen "ikusuntu homogeneousatzaile" horretatik ihes egiten duten lan ugari ari dira sortzen, formatu anitzak: publiko gutxi izateko pentsatutako proposamenak, publiko asko izateko pentsatuak; publiko diferentziatuari begira egindakoak, kutxa beltzean, zurian, gorrian, kalean; txangoen bitartez, solasaldien eta irakurketen bitartez, internet bidez, pelikulen bidez... Dantza garaikideko programazio aktuala, anitza, dinamikoa izateko, konplexutasun horretan murgildu, ikasi, entzun eta berritzeko prest egongo liratekeen programatzaileak beharko genituzke eta ez...

Zein da antzerkiaren eta dantzaren arteko harremana? Espazio berean gertatzen direla soilik? Zein da mugimendua eta hitzaren arteko harremana?

Biak dira arte eszenikoak, beraz eszenarekiko ezagumena eta kodeak erabiltzen dituzte. Nolabait esateko, makinaria berdina erabiltzen dute antzokiaren barnean eskaintzen direnean: teloiak, argiztapena, eszenatokia, butakapatioa, sarrerak erosteko halla, publikoa bil-



tzen den gelaurrea, atak irekitzeko momentua, publikoa isilik argiak piztu eta funtzioa hastean... Anai-arrebak dira. Dantza, arreba txikia litzateke metafora-joko horretan, eta arreba txikia denez, libreagoa da, abstrakzio eta irudimenarekiko arinagoa, promiskuoagoa ere bai: koadrila egiteko joera nabarmenagoa du ikus-entzunezko arteekin, zinemarekin, poesiarekin, musikarekin edota zirkoko arteekin.

Ez dezagun ahaztu koreografia idazkera modu bat dela, espazioan eta denboran gorputzarekin idazteko modu bat. Bestalde, hitza soinua denez, mugimendua da, eta zentzua denez mugimendua eragiten du. Mugimendua, gorputza, idazkera, koreografia, hitza, zentzua, soinua, irudia... dira dantzaren lengoaiaren osagaiak. Osagai horien arteko erlazioak oso desberdinak izan daitezke, hor datza dantzaren ingurunean egiten ari diren lanen aniztasuna; eta edonola, harreman horiek konplexuak dira, hainbat tesitarako emango luke.

Dantzak musikaren beharra du? Dantza egin daiteke isiltasunean? Hori da Euskal Herrian

dantzaren egoeraren metafora, isilean egiten den lana dela?

Bai, bai, dantza isiltasunean egin daiteke baita geldotasun osoan ere. Imaginatu dantza geldo eta isil luze-luze bat. Dantza ezinezkoa litzateke. John Cage saiatu zen isiltasuneko musikak egiten eta ezinezkoa zela ondorioztatu zuen (beti bihotz taupadaren soinura eta mugimenduaren dantzara iritsiko ginake).

Nik isilean egiten den lanaren metafora baino, muteatuta, isilarazita egiten den lanaren metafora erabiliko nuke Euskal Herrian dantzaren egoera azaltzeko eta norbaitek nahita eman dio muteari...

"Programazioa ez dago batere eguneratua. Erabat homogeneizatzailea da, hau da, dantza garaikidearen ikuspegi bakarra eskaintzen da, eta gaur egun oso gauza desberdinak egiten ari dira dantzaren izenean"

Azala Espazioan hainbat sortzailek egiten duzue topo. Zein dira proiektu horren helburuak eta zereginak? Zertan zabiltzate orain?

Azala artista, sortzaile, aktibista eta pentsalariaren arteko topaketa eta hartu-eman lekua da. Espazioaren epizentroak dantza eta arte eszenikoak badira ere, bere uhin hedakorrak naturaltasunez eta promiskuitatez zeharkatzen dituzte beste diziplina artistikoak, hala nola arte performatiboak, gorputzaren arteak...

EINSTEIN vs. BOHR
MUNDUA ULERTZEKO BI MODU

Albert Einsteinek ez zituen onartu mekanika kuantikoaren ondorio batzuk, baina oraindik ez da frogatu ondorio horiek faltsuak direnik. Niels Bohr-ek, aldiz, defendatu egin zituen, eta eztabaida luzeak izan zituzten. Bi genioen arteko eztabaidak ulertzeko liburu egokia da hau.

Zizpiak
QUANTUM
EINSTEIN, BOHR
eta errealitatearen izaeraren inguruko eztabaida handia.

Egilea:
Manjit Kumar

ELHUYAR
edizioak

WWW.ELHUYAR.ORG/EDIZIOAK

Zelai haundi, 3. Osinalde Industrialdea. 20170 Usurbil (Gipuzkoa) Tel.: 943 36 30 40 - www.elhuyar.org

Gipuzkoako Foru Aldundia



Dantza eta antzerkia familiakoak direla uste du Idoia Zabaletak, biak arte eszenikoak direnez; baina dantzari senide txikia izatea tokatu zaio bere ustez. Horrek abantailak ere baditu, ordea: “Libreagoa da, abstrakzio eta irudimenarekiko arinagoa, promiskuoagoa”.

Egonaldian dauden artistentzat ikerketa eta kreatio prozesuetarako baldintza egoiak sortzea du helburu espazioak, autonomia eta askatasun espazio-denborak sortzea, esperimentaziotik, hartu-eman, praktika eta gogoeta kritikotik abiatuta, eza-gutza produzitzeko. Sortzaileen, pentsalarien, publikoaren eta bertakoen artean loturak eta konexioak ere bilatzen ditu, inguratzen gaituen arte, kultura eta gizarte ekosistema aberasteko helburuarekin. Eki-men eta kudeaketa pribatuko egitasmoa da, baliabide gutxikoa –langile gutxi eta ekonomia eskasa–, baina konexio onekoa. Eman, ematen duen proiektua da, baina trukean konpromiso aktiboa eta sostengarria eskatzen die harrera egiten dien pertsoneri; konpromisoa, bai espazioarekin berarekin, baita ingurunearekin ere.

Sormen lanerako eta ikerketarako egonaldiak, lantegiak, laborategiak, mintegiak, topaketak, ospakizunak, ate irekien egunak, paseoak... dira, besteak beste, Azalan egin daitezkeen jarduerak. Etxe irekia da; behin behineko aterpea; aukeraz beteriko leku bat, eragin ahal izateko eta eraginak jasotzeko. Parte hartu eta esku hartzeko ideia bat.

Zer deritzozu dantzari berrien formazioari? Ba al daude aukerak Euskal Herrian bertan dantza ikasi eta sormena garatzeko?

Azalan adibidez hezkuntza eta formakuntzaren kontzeptuak landu nahi ditugu. Espazioak hezkuntza ildo bat garatzen du, prozesu metaboliko modura ulertua, aldi berean banakakoa eta kolektiboa. Prestakuntza- ikasketa- asimilazioa- metabolismoa- transformazioa. Ikerketa kolektiboan sinesten dugu, taldearen autohezkuntzarako gaitasunean ere bai, hala nola praktika eta teoriaren arteko elkarlanean. Horretarako bai lantegiak, laborategiak zein mintegiak antolatzen ditugu. ■



2011ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa


G-PUNTUA

FINALA

ABENDUAK 18

DONOSTIAKO ILLUNBE ZEZEN PLAZA

16:30ean



Liburuak

KRITIKA

Musuak bularretan

Helduen literatura

Igor Estankona

MIQUEL MARTÍ I POL (Roda de Ter, Osona, 1929 - Vic, 2003), tornulariaren eta kotoi fabrikako langilearen semea, gerra eta zikinkeria ezagutu zituen, desagerrarazi nahi zuten Katalunia defendatu zuena lumarekin eta hizkuntzarekin, gaixotasunak makaldua, aita, alarguna, senarra bigarrenez... ederra da, nostalgiaren puruan, gizon honen *Marta maitea* hartzea, Joxemari Sestorainek itzulia. Lluís Llach eta Maria del Mar Boneten Mediterraneoko pinudietako haizea ekarri dit, eta haize horrek, bitxia da, Joseba Sarrionandiaren itzulpenen aparra eta Andolin Eguzkitzaren gozamen malkoak. Horrela korapilatuko zaizu zuri ere bizitza bihotzaren eta sabelaren arteko puntu horretan. *Marta maitea* erabat orekatua da, sakona eta sinplea. Horregatik da aparta.


Vint-i-set poemes en tres temps (Hogeita zazpi poema biru alditan, 1972) idatzi zuenerako, Martí i Polen gorputzean esklerosi anizkoi-tzak egina zuen bere zuloa. Ezinbestean, garai hartako bere poesiak bakardade, oinaze eta

heriotzaren gertutasunerantz egiten du: poeta bere baitan biltzen da. Baina, era berean, zorroztu egiten ditu ikusmena eta ukimena, muga fisikoak zehazki non dituen horien bitartez ikasten hasten da-eta. Horrela, *Cinc esgrafiats a la mateixa paret (Bost esgrafiatu borma berebean, 1975)* lanean nabari denez, katalanak ez errenditzea erabakitzen du. Suspertu eta *Quadern de vacances (Opor-liburua, 1976)* idazten du. Apurka-apurka, fenixa bezala, biztu egiten da Martí i Pol, poesia bitalista eta gero eta distiratsuagoa eginez. *Estimada Marta (Marta maitea, 1978)* baikortasun, sentsibilitate eta izadiarekiko maitasunaren gailurretako bat da, hausnarketa sozialaren, erotismoaren eta etorkizunarekiko konfiantzaren bideetatik doana: “Ez nintzateke loriatuko inork pentsatuko balu itxurakeriaz luzatu naizela eskuburdinaz eta gergilez lotu nauten mugak xeheki azaltzen. (...) Garbi geldi bedi ez nauela heroismoak erakartzen eta ez nabilela eredugarri izan nahian”.

Hitzaren eta sentimenduen uztartze perfektua da Martí i Polen poesia. Lumaren bitartez barne-munduak deskribatzen maisua da. Ez dauka hitz bat alferrik, ez dago estridentziarik, dena da fintasuna. Zergatik maite dugu hainbeste, gainera? *Marta maitea* honetan ageri den lege hurbila delako beti, eta ez diolako inoiz bere buruari penarik hartzen. Atsekabeak atsekabe beti dauka berba gozo zehatz bat Martí i Polek.



Marta maitea.
Miquel Martí i Pol.
Itzulpena: Joxemari Sestorain
Denonartean.
118 orrialde.
9 euro.



txalaparta



www.txalaparta.com

Diskoak

IKER BARANDIARAN



There hereafter.
Supersweet.
Autoekoizpena.
Iraupena: 39'10".
10 euro.

Atzera begirako rockaren jostun trebeak

Askok gogoratuko dute Señor No, eta baita, jakina, Imanol gitarra eta Andoni bateria-jotzailea ere; ez dira-eta ahazteko errazak. Aspaldian Small Thingseko Alvarorekin batera beste koordinada batzuetan lanean ari dira, are eta trebeago. Milurtekoaren hasieran Chico Boom taldea osatu eta dotoreria handiko rocka jotzen aritu ziren, baina taldea desagertzen utzi zuten. Orain, hirukote bihurtuta eta Alvarok teklatuerekin baxua ordezkatzuz, Supers-

weet izenpean 1960ko hamarkadako garagea, popa, psikodelia tanta batzuk eta rock-and-roll gitarrerok dituen gorbatadun proposamena dakarte beso azpian. Detaile guztiak zainduta daude erabat eta Imanolen ahotsa hobetu bada ere, koroak eta melodiak borobilak dira. Begiak itxi eta The Who, TSOOL eta garage-popa ukitu ahal izango dituzu. Ederra!

www.supersweetsound.com

Imanol G. Alcon - Supersweet

«Egiten duguna hemen eta orain disfrutatzeko da, baina gerorako gelditzea ere ondo legoke»

Ahalegin handia behar da bakarrik aurrera egiteko?

Ahalegin handia egiteaz gain, egiten duzun horretan erabat sinetsi behar duzu, ezinbestekoa da. Garai hauetan taldearen alde lan egin eta maila onari eustea oso zaila da. Baina gure buruekin oso zorrotzak gara.

Non gelditu zen Chico Boom? Lana eta kredituak banatzeko unea heldu da?

Inoiz baino gusturago nago. Chico Boom bakarkako proiektu gisa jaio zen eta gerora talde bihurtu zen ia halabeharrez. Orain talde bat gara eta guztiok ardura berdina dugu. Chico Boom lozorroan dago momentuz.

"Bultzada hartzeko teklatu jotzailea jarri iezadazu eta urrun helduko naiz (bateria gutxietsi gabe, jakina)". Hori al da zure leloa?

Oso zoriontsua naiz mundu zati honetako bi musikari onenetarikoak alboan ditudalako. Biek duten tek-

nika, jotzeko era eta izateko modua ikaragarriak dira.

"Hereafter". "Hemen eta orain" jada ez da nahikoa?

Jakina baietz. Egiten dugun guztia hemen eta orain disfrutatzeko da, baina horrek guztiak jarraipena izatea nahiko genuke, hor gelditzea.

The Who, The Soundtrack Of Our Lives eta Beatles gabe hemen egongo zinateke?



Supersweet taldea. Imanol G. Alcon lehena da ezkeretik.

Guztiaren ama dira aipatutakoak, baina badira bestelako eragin batzuk ere: batez ere, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako artistak. Musika konposatzerakoan estiloei zein gure eraginei begiratu gabe musika ona egiten saiatzen gara.

Gaur egun oso talde gutxi zaintzen dituzte koro eta armoniak zuek beste...

Lan handia dakar eta zaila da afinazioari eustea. Inoiz ahotsak bakarrik lantzeko entseguak egin izan ditugu, nork eta nola egitea erabakitzeko.

Chico Boom abiadura bizian heldu zen, baina desagertuz joan zen. Zer lehenetasun emango diozue Supersweeteri?

Chico Boomek oztopo asko izan zituen aurrean: lana, osasun arazoak, bestelako proiektuak... Orain hau da gure proiektu bakarra; hortaz, galdutako erritmoa berreskuratu nahi dugu. ■



Ezpalak

JON TORNER

Euskarazko rap bilduma kaleratu du Info7 irratiak



EUSKARAZ egindako lehen rap bilduma, *Rapheria*, plazaratu du Info7 irratiak. Hamazazpi talderen kantuak bildu dituzte diskoan. Tartean daude, adibidez, Bad Sound System, Goienetxe Anaiak, La Chula Potra, 121 Crew, MAK, Norte Apache (argazkian) eta Indarrap. Durangon aurkeztuko dute bilduma, zuzeneko kontzertuan, hilaren 7an Ahotsenean, 17:30ean.

Olentzeroren abenturak kontatzen dituen animaziozko laugarren filma zuzendu du Gorka Vazquezek: *Olentzero eta Iratxoaren jauntxoa*. Pelikula Baleukok ekoiztu du eta gidoia Xagundo Altolagirrerena da. Olentzeroren laguntzailea izatea lortu duen Anje izeneko mutikoa da protagonista. Olentzerorekin haserretu ostean, Iratxoaren jauntxo maltzurra gordetzen zuen etxetxoa lurrera erortzen lagako du...

• Joan Mari Irigoien idazlearen hitzak jaso ditu

Berriak: «Espainiako Sari Nazionala jasotzen ez baduzu, ez dute biderik egiten itzulpenek. Horrek gure mendekotasuna izugarria dela erakusten du. Madrilek esaten du zein den ona, edo oso ona, eta zein den bigarren mailakoa. Egokitu zaienentzat oso ondo dago hori, baina ez da oso egokia. (...) Garai batean gustura egiten nuen euskal literaturaren jarraipena, baina azken bolada honetan ezinezkoa zait. Bestelako zereginetara jotzen dut orain derrigorrez, zeregin arinagoetara, *Goenkale* ikusi eta horrelakoetara, autosendaketa moduan edo».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

EGURREZKO TAULA
50€

EGUTEGIA
8,50€

BURNIZKO EUSKARRIA
5€

argia

Salgai dagoeneko!

2012ko egutegia

- Eduki historikoak
- Landareei buruzko bitxikeriak
- Txisteak
- Santuak
- Euskal izendegia
- Eguzkia, ilargia eta mareak

ESKAERAK

☎ 943 37 15 45

denda@argia.com

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Estiloan ere egarri

“LAGUNA hausten den hilobiak leher egiteraino zurruta kantua egin litekeen mahaia izan behar luke, zer axola plastikozko lore zikin hauek dardaraka ontzi jausi zartatuaren lepoan, zer axola gure mozkorraldiaren puskailak aldare profanatu batean, zer axola du, bizitza hau ez da edangarria”. Koldo Izagirreren *Egarri egunak portualdean* nobelakoa da esaldia, aurrenekoa, apustu formal baten erakusgarri. Donostiako San Jeronimo kalean (*going underground*) aurkeztu zuen joan den astean eta han bildutako gehienok aldeztu aurretik irakurria genuen liburuak, ezohiko abiapuntua ezohiko aurkezpenarentzat.

1977ko giro politiko eta sozial nahasi, biolento, apasionantea angelu ugaritatiek erretratatu du istorioak: klase gorrotoa, sexu grina, sindikatuen sorrera, polizia-aren errepresioa, feminismoa, heroinaren lehen zamakatzak eta egarria, alkoholarena, gizarte berri batena. Aurreneko irakurrian *Sua nabi, Mr. Churchill?* liburuak ipuinen ildoan kokatuko nuke estilo aldetik, baina oraingoan apustua erradikalagoa da, elipsi sakonagoak, narrazio linealaren haustura gehiago; eta kontakizunaren kadentzia markatzen dute etengabe hiruak tar-tekatzeko diren esaldi labur-reek, pintaketa horiek.

Grabagailuak 40 minutu-tik gorako hizketa erregistratu du eta inpresionista ez, brotxa lodikoa beharko lehiotxo honetako kronika antzeko honek. Nabardura gutxi, zuzenean interesatzen zaidan puntura: Nerea Azurmendik egindako galderak ekarri zuen, nire ustez, eran-

tzun mamitsuena. Nobelaren idazkeraz galdetu zion, zenbait elementu gramatikali uko egin ote dion jakin nahian.

Izagirrek erantzun: “Prosa ulergarri bat idatzi behar-aren beharrez, euskalgintzaren izenean, azkenean prosa administratiboa idazten da, oso pedagogikoa; eta niri ez zait irteten. Ez dut laborategi bat muntatu estilo bat sortzeko, ez naiz ibili baliabide gramatikalak kentzen estilo bat lortzeko. Ezinezkoa iruditzen zait esplika-ziotan aritzea, ‘alegia’, ‘zeren’... Horrelakoak oso esplikatiboak egiten zaizkit eta ez zait batere gustatzen. Hor sortzen da, seguru asko, zuk diozun uko egitea, zenbait elementu gramatikak edo sintaktiko alde batera uztea. Horrek ez du lehenbizikoan ulermena errazten, baina nik uste dut horren bitartez belozidade desberdi-nak ematen dizkiodala testuari eta niretzat inportantea da. Ez dakit hurrengo batean horrela idatziko dudan edo ez, baina honetan behintzat apustu hori egin nahi izan dut, uste nuelako behar nuela saio bat egin fondo-aren eta formaren arteko batasuna lortze aldera”.

Kontu periferikoekin entretenituta ibiltzen gara maiz kulturaz idazten dugun kazetariak eta poztu nintzen aurkezpenean lite-raturaz hitz egin zelako, ale-gia formaz, estiloaz, hau-tu estetikoek buruz. Halako kontuen inguruko eztabai-da serioak uga-rituko balira, bestelako ega-riak lastuko liguke eztarria.



Koldo Izagirre eta Gorka Arrese, Susako editorea, liburuaren aurkezpenean.



ZIENTZIA
IRAKURLE
ORORENTZAT



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

gure
artean
euskaraz




BIZKAIA
BIZIA

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

POPA, IPURTALDE MUSIKA-OBRA	PERTSONAIA-REN ABIZENA ALEAK HAUSTU	APAIZ NAGUSI JUDU	 DANI BLANGO		APAL, XUME PERTSONAIA-REN IZENA	NEKATU HAIZ MUTURREKO ZAFLA	ARGIA MEN EGITE
OLATU ARGIBIDE				JAZZ ESTILO ELIZ DEIAK	JATEKO ONTZI SAGARATU ADITZAREN ERROA		
DEUTERIOA 103 ZENBAKI ERROMATARRERREZ	BI ISURKARIREN BARREIATZEA GOIBELKOR					ARRETA, ARDURA ASTEAREN JAIEGUN	
		APALTA-SUNEZ UKITZEA, UKIPENA		ASPERTZEA KALKATUZ LORTUTAKO KOPIA			ABANTZU, KASIK SUA AMAIARAZI
AHAUSIKA	BIGUN, EZTI ISKANBILA				PERTSONAIA-REN SORTERRIA AR SORTZAILEA		ESERLEKU, JARLEKU
RADONAREN SINBOLOA MADARIKAZIO, ARNEGU	BELDURREZ KONTSONANTE ERREPIKATUA		IRAINA, DESOHOREA ZILARRAREN SINBOLOA			ZUHAUR BETEALDIA, OKADA	LITROA LEHEN BI BOKALAK
ORDAINTZE KO BETEBEHARRAK EZABAGOMA				TEKLATUA-REN GILTZAK MEGA			
						ENE! O!	

Kike Amonarizen umorea

Bankaria

Bankaria limusinan zihoan, parkean gizon bat belarra jaten ikusi zuenean. Txoferrari gelditzeko esan eta harengana joan zen:

– Aizu, jakin al liteke zergatik ari zaren belarra jaten?

– Zergatik ari naizen belarra jaten? Angulak erosteko dirurik ez dudalako! Zuk zer uste duzu, hau nahiago dudala, ala?

– Beno, zatoz nire etxera, han behar bezala emango dizut jaten!

– Milesker –erantzun zion gizonak, burua makurtuta–, baina

emaztea eta sei seme-alabak hortxe dauzkat zain eta...

– Datozela beraiek ere, denentzat izango da!

Azkenean denak sartu ziren limusinan. Etxerako bidean, gizona eskerrak eman eta eskerrak eman aritu zen, gertatzen ari zitzaiona sinetsi ezinik:

– Ez dago eskertu beharrik! Oso pozik eramango zaituztet etxera. Ziur nago asko gustatuko zaizuela. Egin kontu! Belarrak gutxienez baditu hogei zentimetro!

Soluzioa

K	O	L	A	B	A	R	I	A	I	E	I
U	N	A	N	A	B	A	I	A	I	E	I
U	M	A	N	A	B	A	I	A	I	E	I
I	M	A	N	A	B	A	I	A	I	E	I
I	M	A	N	A	B	A	I	A	I	E	I
I	M	A	N	A	B	A	I	A	I	E	I
I	M	A	N	A	B	A	I	A	I	E	I
I	M	A	N	A	B	A	I	A	I	E	I
I	M	A	N	A	B	A	I	A	I	E	I
I	M	A	N	A	B	A	I	A	I	E	I
I	M	A	N	A	B	A	I	A	I	E	I
I	M	A	N	A	B	A	I	A	I	E	I



Bazen behin...

Mahai-jolasa

4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak

6+

Galdera-erantzunak
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61
info@luditoys.com

Ludi**toys**
Jasotako Jolastailak


www.luditoys.com

**"Egin jolas giza gorputzari buruz
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"**

Ihesi

Testua eta argazkiak:
GORKA AZKARATE

Euskal Herria ezagutuz:
Aramaio (Araba)



Hosto itsasoan igeri

“Ez inori esan, eta azkar ibili inguru hori betirako galdu baino lehen. Kurtzetako lepotik Urkiolako mendaterainoko zeharkaldia, Arangioko haitzen gailurretik igaroz eta Anbotoren azpikaldean barrena, Euskal Herriko mendietan egin daitekeen azkenetako ibilaldia dugu. Egidazu kaso”. Hitzaurre txiki horrekin hasten du Luis Pedro Peña Santiagok, bere *Euskal Herriko 100 gailur eta mila txoko* maisulanean, liburuko lehenengo ibilbidearen deskripzioa. Izan bedi, oraingoan proposatzen den ibilbide paregabea, etnologo eta mendizale irundar handiari eginiko omenaldi xumea.


ARAMAIOKO BAILARA Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak bat egiten duten puntutik (Besaide) oso gertu dago, eremu menditsu batean, Durangaldeko Udalaiz, Anboto, Ipizte eta Orixol (Arangioko haitzak) eta Murugain eta Jarindo mendiek inguraturik, uren banalerroa ere bertatik pasatzen delarik. Ibarra da bailarako herrigune nagusia,

baina beste hainbat elizate daude udalerrian: Gantzaga, Etxaguen, Arexola, Barajuen, Azkoaga, Uribarri, Untzilla eta Oleta. Azkena kasu berezia da, haranetik kanpo dagoen auzune bakarra baita, Otxandio (Bizkaia) herriarekin muga egiten duelarik, sapaldan. Bizkaia eta Arabaren arteko muga bihurria da eremu horretan, Otxandio Bizkaia-

ren barruan eta Oleta Aramaioren zati moduan geratzen direlarik. Bitxia, sapaldako herria bizkaitarra eta haranekoa arabarra izatea. Tarteke badago, gure herri honetan, arau orokorra hausten duen kasu-
ren bat edo beste.

Urkiolatik Kurtzetara doa Luis Pedro Peña Santiagok proposatzen duen ibilbidea; guk, berriz, Oletan





Nardin izeneko koba txiki honetan hiru egun igaro omen zituen Santa Kruz apaizak, Aramaioko Udaletxean preso zegoela ihesi egin eta gero. Kutxatilan Orixek haren bizitzan oinarrituta idatzitako liburua, pare bat argazki eta arrosario bat daude gordeta.

Zelai eder batean osatuko ditugu lehen igoerako azken metroak, Urkiolatik Zabalandiko lepora doan hartxintzar bidearekin topo egin arte.

Ipizte eta Santa Kruzen koba

Begirada Anbotoko horman galdurik merezitako atsedena hartu ostean, gertu izango dugu ibilbideko tarterik ederrena. Tellamendi eta Besaide aldera doa ezkerraldeko bidea; Ipizte bere magaletik zeharkatuz Leziagako lepora, berriz, eskuinekoa. Guk zuzen-zuzenean egingo diogu eraso parean dugun Ipizteko harri koxkorrari, aldapa motz bezain gogor batean gora. Zabalandiko zelaia utzi eta basoan barneratu bezain laster, lagungarri izango zaizkigun zenbait kairn aurkituko ditugu, baso eta harkaitz artean biderik errazena zein den salatzen dutenak. Sarritan hosto lehorrez estalirik egon ohi den malda piko honetan kontu handiz ibili beharko dugu, irristada edo bestelako ezustekorik gerta ez dakigun. Zuhaitz artean, Ipizteko postontzia aurkituko dugu luze gabe

hasi eta bukatuko dugu txangoa. Otxandiotik edo Kurtzetako mendetik hurbilduko gara Oleta auzora. Eguraldia lagun izanez gero, hara heldu eta oinez hasi orduko izango dugu Durangaldeko mendien lehen ikuspegi panoramiko ederra. Eskuinetik ezkerrera, jarraian igoko ditugun Orixol eta Ipiztez gain, Anboto, Elgoi, Kurutzeta eta Anbotoko gailurreraren jarraipenaren ikuspegi paregabeaz gozatzeko aukera izango dugu.

Oletako eliza parean hasiko dugu ibilaldia, eta Otxandiotik datorren errepideari jarraituko diogu, kilometro pare bat aurrerago beronen amaierara heldu arte. Autoa errepide amaierako aparkalekutxoan uzteko aukera dago, baina gure ibilbide

zirkularra Oletako elizatik gertu amaituko denez, goiz ala berandu errepideko zeharkalditxo hori egitera beharturik gaude. Zabalandiko lepora ordu eta erdiko bidea dagoela dioen geziaren norabideari men egin eta basoan barneratuko gara, egurrezko zubitxo polita zeharkatuz, margo ikur zuri-gorriak lagun, hartxintzar bide zabalarri jarraituz.

Luze baino lehen utziko dugu bide hori; egurrezko bigarren zubitxo dagoen bidegurutzean zuzen jarraituko dugu, maldan gora. Bidexkak atsedetik gabe egiten du gorantz, baso ezin ederragoan, Anbotoko pareta geroz eta gertuago sumaraziz. Galerarik gabeko bidea da, margo zuri-gorriak eta kairn edo harri pila txoek gidaturik osatuko duguna.



Aramaioko ibarra Ipizteko gainetik ikusita.

(1.057 m). Ez da Ipizte ikuspegi oparoko gailurra, zuhaixkek mugatu egiten baitiote ikusmira zenbait norabidetan, baina Aramaio harana (Ibarra, Gantzaga, Etxaguen, Untzilla...), eta jarraian igoko dugun Orixol mendia ikuskatzeko behatoki ezin hobea dugu.

Hegoalderantz okertuko dugu segidan norabidea, igoerako bidexka eskuinean utziz eta uneoro Aramaio harana hartuz erreferentzia moduan. Eremu nahasi xamarra da jarraian datorkiguna, eta kontuz ibili behar da hostoz estaliriko harri artean. Altuera apur bat galduz, gailurreriari jarraiki, Iruatxeta Erdikoa izeneko orratzaren oinarriara iritsiko gara. Alderik alde pitzadura txiki batek zulatzen du orratz erraldoi hori, Santa Kruz apaizaren koba

gordetzen duen sakonera igarotzea ahalbidetzen duen pitzadurak, hain zuzen. Beldurrik gabe, gorputza biratu eta atzeraka murgilduko gara pitzaduran barrena, oina non jartzen dugun ondo aztertuz, Aramaio haraneko ikuspegi amestua eskaintzen duen balkoi moduko batera heldu arte. Santa Kruz apaizaren koban gaude, Nardin koban.

Albo batean kutxatila gardena aurkituko dugu. Santa Kruz apaizaren garaiko argazki pare bat, Nikolas Ormaetxea *Orixek* haren bizitzan oinarrituta idatzi zuen liburua eta arrosario bat daude barruan. Leku berezia.

Leziagako lepo magikoa

Ipizte eta Orixol bereizten dituen Leziagako lepoa da hurrengo jomu-

ga. Lepo eder horretara heltzeko, aukera bi: Ipizteko gailurreri gorabeheratsua jarraitu –Gantzaga eta Leziagako haitzak gaindituz– edo gailurreriatik eskuinalderantz jo, pagadian behera, bide argirik gabe, Zabalandiko lepotik Ipizte saihestuz Leziagako lepora doan bidexkara heldu arte (margo ikur zuri-gorriek gidatuko gaituzte berriro). Lehenengo aukera, ederra izanagatik, ez da gomendagarria eguraldi hezea izanez gero; agian ederragoa den bigarrenak, berriz, ez du aparteko arriskurik, baina hostoz estaliriko basoan kontuz ibiltzea eskatuko digu, bihurrituren bat izan nahi ez badugu.

Leziagako lepoa erraz ahanzten ez den leku horietako bat da, heltze hutsak ibilaldiari zentzua ematen dion leku magikoa. Ipizteko haitzen

Santa Kruz apaiza (Elduain, 1842–Pasto, Kolonbia, 1926)

Manuel Ignazio Santa Kruz Loidi, gipuzkoar erlijio-gizon eta militarra, Santa Kruz apaiza goitzenaz ezaguna izan zen. Apaiz ikasketak Gasteizko seminarioan egin ondoren, Hernialdeko erretore izan zen bolada batez. Don Karlos erregegaiaren aldekoa zen, eta Frantziara ihes egin behar izan zuen horregatik. Bigarren Gerra Karlista piztu zenean, tropa karlista baten buru zela itzuli zen. Zornotzako Akordioa ez zuen onartu, ordea, eta borrokan jarraitu zuen atxilotu zuten arte. Arrasaten hartu zuten preso, eta Aramaio Udale-

txean egon zen giltzapeturik. Ihes egin eta Ipizte mendien errailetan dagoen koba txiki famatuan igaro zituen, diotenez, hiru egun inguru, Frantzia aldera abiatu aurretik.

Karlista zein liberalen aurka gogorkeria handiz jokatzen omen zuen Santa Kruz apaizak, eta heriotza zigorra ezarri zion karlisten gerra kontseiluak. Indultua lortu zuen, baina. Gerra ostean, Amerika aldera abiatu zen; Jesusen Lagundian sartu eta misiolari lanak egin zituen hainbat lekutan. Kolonbian hil zen, 84 urte zituela.



Goian, ezkerrean, Santa Kruz ermita, Orixoleko tontorretik hurbil. Ondoko argazkian, ermita bera tontorretik ikusita. Lerro hauen eskuinean, Ipizteko haitzak eta Orixol, Ipizteren gailurretik ikusita.


eta Orixoleko pagadi itxiaren erdian zelai koxkor batekin egingo dugu Leziagan topo. Alde batean borda txiki bat eta bestean Aramaioiko ibarraren ikuspegi paregabea. Ametsetako txokoa. Pagadian barneratu eta Orixolen estreinako maldei egingo diegu aurre, Bizkaiko Bira eta Uren Banalerroaren ibilbidea mugatzen duten ikur zuri-gorriak bistatik galdu gabe. Hasierako malda horietan izerdi pixka bat botako dugun arren, ordeka nagusituko da ondoren, eta gozatu egingo dugu hosto lehorren gainean urrats bakoitza ematearekin. Luis Pedro Peña Santiagoren hitz goxoak etorriko zaizkigu gogora Orixoleko gailurrera hurbiltzen goazen heinean. Mundutik aparte gaudela pentsatu liteke, baso zoragarriak sorgindurik.

Azken gailurra: Orixol

Une batean, Orixoleko gailur soile-ra eramango gaituen xenda haitemango dugu bidegurutze batean (ikur nabarmena dago pago baten

enborrean). Harri artean azken metroak osatu eta Arangioko haitzen puntu garaiera helduko gara, Orixoleko gailurrera (1.130 m). Gailurra baso itxitik kanpo dago, eta horri esker ikuspegi paregabeaz gozatuko dugu: Anboto, Ipizte, Tellamendi, Murugain, Orkatzategi, Kurutzeberri, Aloña, Aizkorri... Otxandio eta Oletako ibarra ere talai ezin hobetik menderatzearen sentipena izango dugu.

Gailurrean atsedean hartu ondoren ibilbidearen azken zatiari ekingo diogu. Orixoleko igoera hasten den bidegurutzeraino itzuli eta Krutzetako mendatera doazen ikur zurigorriei jarraituko diegu berri, minutu gutxiren buruan Santa Kruz ermitatxora heltzeko. Oleta auzoa gertu sumatuko dugu begirada Otxandioko sapaldara zuzentzean. Jaisteko bide egokia aurkitzea da falta zaigun bakarra, margo ikurrak Krutzeta aldera doazela kontuan hartuz, ibilbidearen amaiera ikur horien laguntzarik gabe egin beharko baitu-



gu. Gailurreria nagusia utzi eta eskuinera abiatuko gara, pagadian behera, txabola batekin topo egin arte. Txabolatik gertu hartxintzarrezko pista dago, baina gu erreka zuloan behera abiatuko gara berau utzirik, kairn arrastoei gidaturik. Bizkor galduko dugu garaiera, urari jarraituz, eta laster Oletatik gertu gaudela adieraziko digun bide zabalago batera helduko gara. Aldatsa ordeka bilakatzearekin batera Oletako lehenengo etxeak ikusiko ditugu parez pare, eta hala iritsiko gara hasierako puntura, mundu magiko batean bidaia egin ostean. ■



Aramaioiko Udala

Euskera da gurie dan bakarra!

Bixente Goikoetxea plaza, 1
945 44 50 16
01160 Aramaio (Araba)
www.aramaio.org



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Urak ez du 0°C-tan zertan izoztu

BERRIKI EGINDAKO ESPERIMENTUAN, Utah-ko Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek ura -48°C-ko tenperaturan egoera likidoan mantentzea lortu zuen. Hortik behera ura bat-batean izoztu zen, baina nola lortu zuten tenperatura horretan ura egoera likidoan egotea?

Ura 0°C-tik behera egoera likidoan mantentzen dena, kasu ugari topa ditzakegu naturan; lainoan, adibidez, inguruko airearen tenperatura gradu askotan negatiboa izanik ur-tantak topa daitezke. Gakoa uraren purutasun-mailan datza, hau da, uretan normalean dauden ezpurutasunek (gatzak, hondarrak, eta abar) eragiten dute urak 0°C-ren inguruan izoztea. Zenbat eta ur puruagoa izan orduan eta izozte-puntu baxuagoa lortuko da; Utah-ko ikerlariak -48°C-tan finkatu dute, oraingoz, izozte-tenperatura.

Ez dirudi aplikazio praktiko izugarriarik izango duenik saiakera honek, baina gutxienez, hobeto ulertuko dugu zergatik, batzuetan, euri-urak lurra ukitzean bat-batean izozten diren.



WWW.ADNBILISIM.COM



Fereka egiteak garunean duen eragina



MARY CASSATT

GIZAKIOK MAITE DUGU ferekak jasotzea, eta hori neurtu daiteke garunera ailegatzen den odol kopuruaren bidez.

Berriki, Gotenburgoko Unibertsitatearen (Suedia) menpe dagoen Sahlgrenska Akademiako ikerlariak, arestian esandakoa ez ezik beste hau ere frogatu dute: gure garunak berdin jokatzeko duela beste bati egiten zaizkion ferekak ikusita. Saiakera honen bidez enpatiarekin azterketa bultzatu nahi da batetik, eta bestetik elkar ukitzeak duen garrantzia azpimarratu nahi da; izan ukitze goxoak, izan erdeinuzkoak.



Mikroskopioz hartutako irudi lehiaketa

Argazki eta bideo lehiaketa ugari daude, baina hemen aurkeztu nahi duguna teknologiak ahalbidetutako lehiaketa berezia da. Olympus etxeak 2004. urtetik aurrera mikroskopioz hartutako irudi lehiaketa abian du eta aurtengo irabazleen berri eman nahi dizuegu. Egoiena, irudiok zuek ikusteak. <http://ttiki.com/33003> (Ingelesez)

Erradiazioak inguratuta

Albacete-ko (Espainia) biztanleek jasaten dituzten erradiazioak aztertu ditu Gaztela-Mantxako Unibertsitateko zientzialari talde batek: WiFi sareak, irrati eta telebista seinaleak, telefono-uhinak eta abar. Azterketa horretan parte hartu duten ikertzaile biri egindako elkarrizketa duzue ikusgai ondoko loturan. <http://ttiki.com/33004> (Gaztelaniaz)

Siliziozko ikerlarirantz?

Joan den mendeko kalkulagailu eta ordenagailuek bidea zabaltzen zuten gaurko superordenagailuei. Eragiketa-abiadura asko handitu da, baina datuak, betiere, kanpotik sartu behar dira. Orain, ordea, lan hori makinak egitea lortu nahi da, eta lortutako datuak berak prozesatu ditzala ere bai. <http://ttiki.com/33005> (Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Zur-papur

AUZOLANEAN ARI DIRA zuhaitzak. Onddo txatxu batek txankro erretxinaduna eragin eta Euskal Herri atlantikoko basoetan azken mendean jaun eta jabe izan den pinu beltzaren hagintea eraistea lortu du. *Fusarium circinatum* izena du onddo alu horrek! Eta gorri, larrua bizirik gelditu ez da bada mendia! Jo eta hotzikarak dar-dar mendia...

Makina bat buruhauste izango du hemendik atzera basoari etekinik atera nahi dionak. Buruari aztarrika egin beharko dio. Aztarrika horretan maiz aritzen naizen horietakoa naiz, ez ordea basoari begira. Azken urte hauetan baina, lan kontu batzuk gora-behera, aspaldi baztertuak nituen tala batzuetatik begiratu behar izan diot basoari. Galdera xalo bati erantzuna topatze aldera... Bere sinplean seko bihurria den galdera: zer arraio egin behar dugu basoarekin etorkizunean?

Geure isuri atlantikoa da munduan proportzioan baso gehien duen lurraldeetako bat. Eutsi ez, gora tira beharko genioke, lehenaz gain. Hori da gure etorkizuna. Gaur bertan jarri dut Facebooken nola Eskoziak eta Danimarkak marka jartzekoa duten: urte gutxi barru energia kontuetan burua aski izateko haize-erroten plangintza abiatu dute. Eta guk? Independentistok?

Lorategi bat diseinatzen denean bezala egin behar da lan basoan, hau da, jartzen dena irabazi eta irabazi



izango da urtetan eta urtetan. Erronka jo, desafioari heldu eta urte askotarako bideari ekin behar zaio. Erdi Aroan gure herriak bizi izan zuen bere bigarren urrezko aroa ezinezkoa litzateke basoen kudeaketa egokirik gabe. Gaur tankerako barruti baterako atakan gaude: gure etorkizuneko energia basoak eman behar du. Garai hartan ikatza bezala, nahikoa zur-papur egiten badugu ez da hotzik izango hemen, ez eta hotzikararik ere.

Pinudiak gorri utzi dituen lur sailak okupatzen ari diren zuhaitzak auzolanean ari dira. Gurekin auzolanean, bidea erakusten digute: zein zuhaitz dago prest horretarako. Nola landu asmatu besterik ez dugu egin behar guk.



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Galdera garrantzitsu bat daukat: ea menda-belarra nola galdu litekeen.

Faustino Urbizu (Segura).



Iepa, Faustino. Galdera sinplea baina bai sakona! Ez da erraza menda-belarra galtzea. Menda nitrogeno asko dagoen lurretan erruz ugaltzen da. Mendak lur aberatsa dela adierazten du, edo bertan abere asko ibiltzen dela, eta haien simaurra... Nitrogeno gaindosia, ordea, eta desoreka. Horren ondorioz menda eta osina, batez ere, azaltzen dira indarrean. Galtzeko sustraia atera behar dira. Eskuz ez da lan zaila, baina lana!

Ilargiero makinaz moztuta asko atzeratzen da, beti ilgoran moztu eta ahal bada egun beroenetan, egokienak maiatzetik irailera arteko ilgorak dira.

Bestela herbizidak badaude, baina...

Menda denak galdu aurretik sorta on bat egin eta etxea harekin igurtzi, usain ederra zabalduz xomorro eta intsektuak uxatuko dituzu. Gero ohepean utzi, arkakusoak urrutiratuko dizkizu. Gure amona Joxepak hala egiten zuen.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Thomas Jefferson eta klima aldaketa

JOHN TRUMBULL



Thomas Jefferson 1778an. Ordurako bi urte zeramatzen eguraldiari buruzko datuak biltzen, klima aldaketak kezkatzen baitzuen.

gutxitan, astebete. Zaharrek esan didatenez, elurak urtero hiru hilabetez estali ohi zituen lur hauek, eta gaur egun ia sekula izozten ez diren ibaiak negu oro izozten ziren. Aldaketa honek tenperatura gorabehera handiak ekarri ditu udaberri honetan eta hori oso kaltegarria izango da uztarentzat”.

Aldaketa hori gizakiak eragindakoa zela uste zuen Jeffersonek; baso azalera handiak soiltsen ari ziren AEBen nekazaritzarako soroak zabaltzeko, eta horrek klima aldaketarekin lotura zuzena zuela uste zuen.

1799an Thomas Jeffersonek abiatutako eztabaida Connecticuteko Arte eta Zientzia Akademia sortu berrira iritsi zen, eta hantxe itzali zen, Noah Webster AEBetako hezkuntza sistemaren aitaren eskutik (1758-1843). Websterren esanetan, Jeffersonek bildutako datuak ez ziren zehatzak eta ez zuten ezertxo ere frogatzen, pertsona bakarrak toki gutxitan hartuak zirelako. Gainera, klima aldaketaren teoria herritarren sineskerietan oinarritu izana leporatu zion garai hartan AEBetako presidenteorde zen Jeffersoni. Websterren arabera, aldaketak oso bakanak eta “mikroklimatikoak” ziren.

Handik bi urtera, 1801ean, Thomas Jefferson AEBetako presidente izendatu zuten, eta zortzi urtez potentzia berriaren burua izan zen. Baina 200 urtez klima aldaketari buruzko teoriak oihartzun urria izan zuten, eta Websterren tesia nagusitu zen.



Arrastoak

Europako errepide maparik zaharrena berritxuratu dute

TABULA PEUTINGERIANA dela-koa Erromatar Inperioko IV. mendeko bideak jasotzen dituen dokumentu kartografikoa da. Gorde diren aleak XIII. mendean monjeek egindako kopiak izan arren, Europako errepide mapa zaharrena dela esan daiteke. Maparen berezitasun nagusia munduko bola erabat deformatuta, luzatuta irudikatzen duela da, pergamino zerrenda luze batean marraztu baitzuten.

Cambridgeko Unibertsitateko Richard Talbet irakasleak maparen bertsio interaktiboa sortu du berriki, eta René Voorburg irakasle holandarrek Google Mapsen tresnak erantsi dizkio, erabiltzaileek mapa eguneratua Interneten eskuragarri izan dezaten (www.omnesviae.org).



CONRADI MILLIERI



Goian, *Tabula Peutingeriana*-ren xehetasuna. Azpian, mapa bera Interneten eguneratua.

VIRGINIA (AEB), 1776KO UZTAILAREN 1A. Thomas Jefferson (1743-1826), AEBen aita fundatzaileetakoa, urte bereko Independentzia Deklarazioaren egile nagusia eta geroago herrialde berriko hirugarren presidente izango zena, eguneko tenperatura eta eguraldiaren fenomeno guztiak jasotzen hasi zen bere egunkarian. Hilabeteko eta urteko batez bestekoak kalkulatu zituen gero, eta inguruko zaharren kontakizunak eta ahozko tradizioari esker gordetakoak ere bildu zituen. Klima aldatzen ari zela uste zuen.

1781ean kezka hura *Notes on the State of Virginia* (Virginiako estatuari buruzko oharra) lanean azaldu zuen: “Klima nabarmen aldatzen ari da. Neguak askoz neurritsuagoak dira. Elurra ez du hain maiz egiten eta, egiten duenean, gutxiago botatzen du. Sarri, ez dago elurrik mendien magaletan, gehienez ere bizpahiru egun irauten du, eta oso

José Eugenio Azpiroz

«Prozesu politiko bat ezin da gaurtik biharamunera gauzatu»

1955, Donostia. Zuzenbidean lizentziatua. PPko diputatua Espainiako Gorteetan, Gipuzkoako hauteskunde-barrutitik. Seigarren legealdia beteko du Kongresuan: “Mariano Rajoyk erakutsiko du presidente izateko gaitasuna duela, esperientzia baitu horretarako” esan digu.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

PPk Espainiako hauteskundeak irabazi ditu gehiengo osoz. Dena dela, azken hauteskundeetatik ez da hainbeste hazi bere aldeko boto kopurua. Hala espero al zenuten? Edo gehiago?

Gure helburua Espainia gobernatze-ko gehiengoa lortzea zen, eta gehiengo osoa lortu dugu. 600.000 boto irabazi dugu aurreko hauteskundeetatik. Galdera bestera planteatu behar da, izan ere, PP oposizioan hamar milioi botorekin egon baita. Nik 180 diputatu aurreikusi nituen, eta 186 lortu ditugu. Zentro-eskui-nak inoiz lortu duen emaitza onena.

PSOEren Gobernuaren egoera ikusita ez zen zaila horrela irabaztea ere.

Gobernuak [Rodríguez Zapatero da jarduneko presidentea] politika txarra egin izanak badu eragina, noski. Espainiak Europar Batasuneko (EB) batez besteko langabezia balu, 2, 5 milioi jende gehiago izango litzateke lanean, egoera ezberdina litzateke. PSOEek ez zituen beharrezko neurriak hartu, behar zenean. Krisi ekonomikoaren parametroak izugarriak izanik, diru publikoa xahutu du: E delako plana tarteko, EBko diru laguntzak barne. Estatuko buletinean ez ziren kontuak agertu dira azken unean: Estatuak dirua mailegatu du eta mailegu izugarriak eskatu behar izan ditu. Gainera, gu antipatriotatzat jo gaituzte sozialistek. Gobernu horrekin errazagoa da irabaztea, ados, baina gu koherenteak izan gara gure proposamenetan.

Datorren garaian gobernatzea ez da erraza izango, krisi ekonomikoa are eta handiagoa baita.

Bai. Gainera, Gobernu honek gure proposamenen aurka egin du: gastu publikoa zabaldu, zergak igo (BEZ barne). E delako plana hori 18.000 miloi eurokoa zen, eta azkenik,

praktikan, diru hori bota izan da. Neurri ekonomiko leungarriek ez dute aberastasunik ekarri.

(...)

PSOEek 41 plan egin ditu, egun batean hau planteatu du eta bihar kontrakoa. 2010eko maiatzaren





“PPko botoemaile batzuek ziurtatua ikusi dute Madrilen PPren Gobernu, eta EAJri botoa eman diote Amaiurrek ez dezan hegemonia irabazi EAEn”.

10ean Zapaterok harritu gintuen Diputatuen Kongresuan aurre egiteko neurriak aurkeztu zituenen. Orduan zeharo aldatu zuen bere politika ekonomikoa. “Zorretan sartuko gara, baina dirua udalei eta besteei emango diegu...” esan zuen. Azkenik, gastu gehigarria ekarri zuen. Aldaketa horiek egitean, funtzionarien murrizketak etorri ziren: %5-10en artean. Gainera, soldatak izoztu zituen, pensioak ere bai, minimoak salbu. Orduan hasi zen gastu publikoaren kezkatzan. Ez dezagun ahaztu, Gobernu honek superabita zeukan Estatuaren kutxan legealdiaren hasieran. Bi urteren ondoren defizita izugarria da. Espainiako zor publikoa ez da beste herrialde europarren baino handiagoa, larritasuna aldagetak azkartasuna izan da, zenbaki positiboetatik negatiboetara pasatzeko modua: 300.000 milioi euroren zorretik 700.000 milioira pasa gara begikliska batean.

Alemaniko kantziler Angela Merkel berehala deitu dio Mariano Rajoyri gogoratzeko, egoera ezin hobean dagoela gobernatzeko (gehiengo osoa duelako) eta erreformak egiteko.

Espero zen deia, eta, dakigunez, elkarrizketan bi aldekoen jarrerak agertu dira, normala den bezala. Merkelek “ez lokartu, neurrietan

sakondu behar duzue erreforma fidagarriak egiteko” esan du. Alegia, defizita eta zorra gutxitu, eta diru gutxiago eskatu EBri. Rajoyk esan dio: “Horrela izango da, baina zuri ere eskatzen dizut maniobra tarte bat, ez naiz oraindik presidente”. Europak tarte eman behar dio Espainiari, bere etxeko lanak egiteko. Alegia, eman diezagutela denbora, papera eta boligrafoa hartzeko edo ordenagailura hurbiltzeko.

Zertan ezberdinduko da PPren Gobernu PSOEren Gobernuaren aldean?

Esaterako, gestioari aurre egiteko eran. PSOErekiko horrek ezberdintzen gaitu hasteko. Orokorrean, ezkerrek –sozialistek, kasu– espazio publikoak inbaditzeko joera du, bizitza publikoa handiagotzeko eta pribatua txikiagotzeko. Sozialistek gizartearen ekimena txikiagotu dute, eta horren ondorioz, aurrekontu zabalagoak eta gastu handiagoak egitean, zerbitzuen prestaketan diru gehiago sartu dute. Horiek herritarrei hartu dizkieten baliabideak dira. Aldiz, PPn gehiago sinesen dugu pertsonaren gaitasunean, ekimen pribatuan saiatzen den eta aberastasuna sortzen duen jendearengan. Elkartasunezko politikak egin behar dira, baina ez gastu publiko neurrigabeak, gizarte zibilari itzuli behar zaio protagonismo finantzarioa.

Ekonomiatik lurraldetasunaren gaira etorri. Mapa politikoa PPren urdinak hartu du, Katalunian eta EAEn salbu.

Kataluniako emaitzez irakurketa baikorra egin dut nik, baita Galizia-koez ere. Nuñez Feijoren Gobernuarekin gertatuaz, alegia. Gobernu horiek neurri antipopularrak eta hainbat murrizketa egin dituzten arren, herritarrek, katalanek nahiz galiziarrek, ulertu dute egoera eutsi ezina zela. Erkidego autonomoetan kreditua – Katalunian bereziki – praktikoki ezdeusa zen. Bono patriotikoak egin behar izan dituzte interes tipo alturekin administrazio autonomikoaren engranajea funtzionamenduan mantentzeko. CíUk hirukoaren zorra heredatu zuen eta Galizian bipartituarena. Baina bieie ondo joan zaie. Ikaspena haxe da: gizartea heldua da. Askotan ez dugu baloratzen, baina jendeari egoera ongi azaltzen zaionean –tartearen sektore batzuk protestarako prest badaude ere– herritarren gehiengoak botoarekin adierazten du bere nahia. Egoera larria dela ikusten badu ere, erreformak eta murrizketak egin behar badira ere, gobernuak sostengatzen dituzte. Jendeak badaki ez garela egoera zail honetatik erraz aterako. EAEn, berriz, hasteko, azken feudo sozialista erori da, aurrekari gabekoa da. Alderdi sozialistak behin ere ez du horren ordezkari murrizta izan Espainiako historia demokratikoan.

Amaiur eta EAJren emaitzak balartzea nahi nuke, halere.

Begibistako da, Amaiurrek [Bildu zen orduan] arrakasta itzela izan zuen udal hauteskundeetan, eta orain errepikatu du. Beraz, sosegu eta perspektiba izan beharko dugu datu eta soziologia elektoralaz aztertzeko. Gipuzkoan eserlekuen erdiak [hiru] PSOErenak izatetik Amaiurrenak izatera pasa dira. Egia da, aurrekoetan ez zuela honek parte hartu, baina Eak eta Aralarrek bai, sakabanatuak izan arren. Botoen transferentzia izan al da? EAJk eutsi dio. Ez dio Amaiurri botoa mailegatu. Egoera berria da, halere. Baina egia da ere, Amaiur baliatu dela egoeraz. ETAk behin betiko su-etena kanpainan iragarri du, eta, batzuek beren parte-hartze

politikoa aldarrikatu dute. Esan dute ona zela Amaiur egotea, bakearen ekarleak zirela. Propaganda egin diote. Ilusio kolektiboa sortu da, eta horra. Ikusi beharko dugu denbora joan ahala, gobernatzeko ardurak dituzten tokietan, jatorrizko ñabardura ideologikoak agertzen direnean, proiektu soziala eraikitzean, ea Amaiurren eta Bil-dun pentsatzeko dauden modu ezberdinek bateratuta segituko duten edo ez.

Mariano Rajoyk ez du Amaiur hartuko alderdien lehen bilera txandan.

Normala da. Amaiurren dauden kolektibo batzuek, hasteko, urrats erabakiorra eman behar dute, ikuspegi etiko eta zibiko batetik. Biolentzia arbuia behar dute guztiz, eta ETA desegitea eskatu. Horretan oraindik bidea egin gabe daude. Gainera, modelo politikoaren azalpen argia egin behar dute —lurraldetasun hau bai edo ez, autodeterminazioa bai edo ez, eztabaidatzea—. Hau da, zer proposatzen duten materialki eta praktikoki: nola nahi duten gizarte hau artikulatu. Horretan zalantzak daude: zein eta nola-koa da euskal gizartearen gainerako indar politikoei jarrera, zein leku dugu guk euren eskeman.

Dena dela, Amaiurrek Estatu honetako herritarrak ordezkatzeko dituen konstituzioaren dena sartzen omen da.

Argi eta garbi hitz egiteko, atzo, ezker abertzaleko kide batek esan zuen —Rufik edo—: guk ez diogu uko egiten etorkizunean EAJ, Ezker Batua edo Alderdi Sozialistaren botoak jasotzeari, ez zuen PPren

botoak esan. Gure jarrerak eta haie-nak oso aldentuta daude. Etorkizunean ezker abertzalearen mundua normalizatzea besterik ez dut desio, beren gain hartzea balore demokratikoak, bere sakontasunean. Izan ere, beren proiektua izan daiteke barneratzailea edo inposatzailea. Ea lehen den. Gure ustez, hori oraindik ez da iritsi. Gaur gaurkoz, PPk ez du ikusten mintzatzeko bidea, gutxiene-k akordioa horretarako ere.

“Prozesu hau berria da. Sen oneko dosi handiak aplikatu behar dira, pazientzia, gertakarien eboluzioari segitu behar zaio tentuz”

Nola heldu behar dio, zure ustez, Mariano Rajoyk, Aieteko adierazpenari, zabaldu den prozesuari, ETAk hartutako erabakiaren ondoren?

ETA ez da amaitu. ETAk ez du armen entrega aldarrikatu, desegin eta amaitu dela esan. Noski, begibistakoa da, egoera ez da, esaterako, 2000 urtekoa. Prozesu hau berria da. Sen oneko dosi handiak aplikatu behar dira, pazientzia, gertakarien eboluzioari segitu behar zaio tentuz, eta, legalitatearen barnean, sentiberak izan behar dugu eboluzioaren arabera. Rajoy oso kapaza da egoera hau bideratzeko, eta izendatuko dituen Barne edo Justizia ministroak ere bai. Baina, prozesu politiko bat ezin da gaurtik biharamunera bideratu eta gauzatu. Noski, nik ere hala nahi nuke.

Bitxikeri bat: lau indar politiko nagusiek (PP, EAJ, Amaiur, PSOE) hauteskundearen ondoren, nor baino nor hasi ziren botoak alderatzen. Iñaki Oyarzabalek PP lau herrialdeetan alderdi bozkatuena dela, esan zuen.

Hori dialektika politikoari atxikia da. Hasteko, hauteskunde-barrutiak probintzialak dira, ez dira EAEn ez Nafarroan. Hemen edo han, nola gerta, zenbakiak hobeto ateratzen zaizkigunean egin ohi dugun jokoa da. Hauteskunde hauek nazionalak dira, eta batzuetan guk geuk ere ahanzten dugu hori. Espainia gobernatzeko hauteskundeak dira.

Nazioa aipatu duzu, eta askorentzat nazioa euskal nazioa da.

Baina konstituzionalki ez da horrela. Hori batzuen errealitate desiratu da, baina ez da erreala. Eta, nire ustez, oso zaila da hori aldatzea. Batek esan dezake nire errealitatea da Espainiako lau herrialde hauek, edo zazpiak, edo ez dakit zein probintziaren zatia. Zuk planteatu hori eztabaidatu eta sakondu daiteke, baina gaur gaurkoz, marko-juridiko legala eta Konstituzioa, direnak dira. Egia da, hauteskunde hauetan orain arte gertatu ez dena gertatu dela Euskal Herrian [*País Vasco*]. Erkidegoaren interpretazioa egin dezakegu, zuk egin bezala, baina hori errealitatea desitxuratzea da. Alegia, gainerako Espainian saskibaloian jokatu da, eta hemen esku-baloian. Han krisia ekonomikoa izan da gaia, eta hemen EAJren eta Amaiurren arteko lehia. Hegemonia nazionalistaren klabea jokatu da, ez da izan Espainiako Gobernuaren aldaketa dinamikan. EAEko hauteskundearen aurrekaria izan dira, sektore nazionalistan kokatuta, ea nork hartzen duen lidergoa. Horrek polarizatu du kanpaina. Hori gabe, ziur aski, boto nazionalista gutxiago izango zen. Esaterako, botoemaile batzuek EAJ lehenetsi dute PSERen aldean, ez baitute begi onez ikusi PSOERen politika. PPko botoemaile batzuek ziurtatua ikusi dute Madrilen PPren Gobernuaren, eta orduan EAJri botoa eman diote, Amaiurrek ez dezan hegemonia irabazi EAEn. ■



Tolosako Babarruna



Hoberenak soilik aukeratzeko ditugu

☎ 943 650 253
www.tolosakobabarruna.com



Brasillrunen
Colon, 62 IRUN Tel. Fax. 943. 61 50 79




DANI BLANCO



Bingen Zupiria

Urki laztana

Kaixo Urki. Ez zaitut ezagutzen. ARGIAko orrietan irakurri dut zure berri. Antza denez 5 urte dituzu eta 630 kilometro egin behar dituzu, batez beste, gurasoak ikusteko, zure aitona-amonekin batera. Espetxean omen dituzu gurasoak; ez dakit non eta ezta zergatik ere. Erreportajearen egileari ez zaio garrantzitsua irudituta detaile hori, ez baitu zer ikusirik zure sufrimenduari, eta zure modura aste-buruak autobusetan igaro behar dituzten beste milaka seniderenarekin.

Nire haurtzaroko Hernanin ere, detaile asko ez ziren garrantzitsutzat jotzen eta ez zizkiguten denbora askoan kontatu. Hernani herri lasaia zen. Eta itxuraz denok bakean bizi ginen. Politika kontuetan sartzen ez zenari bakean bizitzen uzten zioten. Hernaniko kanposantuan guda zibilean izandako hilketak, alargunen tragediak, kartzela eta heriotza-zigorrrak, ... isilean geratu ziren. Aurrerago, koskortzen hasi ginenean, gure lagun batzuen gurasoak gerran Francorekin ibili zirela jakin genuen; gerratik herrira irabazle itzuli zirela eta haien legea nagusitu zela gure herrian. Jatorrak eta atseginak ziren, eta haien etxeetan beti ongi hartzen gintuzten. Hori bai, ez zuten ongi ikusten guk euskaraz hitz egitea edo kantatzea. Eta ez zuten onartzen haiek egindakoari buruzko galderarik edo komentariarik egitea. Gainerakoan dena normal.

Demokrazia iritsi zenean, berriz, beste batzuek hartu zuten agintea nire gaztaroko Hernanin. Baina, berriz ere, herrian gertatzen ziren gauza askoren detaileak isilean geratu ziren. Hobe zen haietaz ez hitz egitea arazorik ez edukitzeko. Gogoan dut, Urki, zure adina zuten haur batzuen aita tabernaria kale bazter batean seko utzi zutela tiroz hilda. Haren seme-alabek gurekin ikasten zuten ikastolan, baina hobe zen gertatutakoz ez hitz egitea. Seguruenik, gainera, zerbait egin izango zuen horrela bukatzeko! Urte batzuk geroago jakin nuen Hernaniko beste ezagun bati hankan tiro jo ziotela. Eta beste bati gutun azal bat utzi ziotela lantokiko mahai gainean, langileen bistan. Hartzaileak ez zion kasurik egin jasotako mezuari. Handik aste batzuetara haren etxeko postontzira iritsi zen antzeko beste gutun bat, baina bigarren honetan emaztearen izenean bidalia. Gure ezagunak, etxekoen beldurrak bultzaturik, eskatzen zioten dirua ordaintzea erabaki zuen, horrela bakean utziko zutela pentsatuz. Baina alferrik. Hurrengo urtean beste bat jaso zuen, eta hurrengoan beste bat... Baina, bueno, garrantzirik gabeko detaileak ziren horiek ere, eta garrantzitsuagoa zen beste batzuen sufrimenduari erreparatzea.

Ez dakit, Urki laztana, zer etorkizun tokatuko zaizun zuri. Ez daukazu bizi duzun egoeraren errurik eta ez da bidezkoa zure gurasoen egindakoaren ondorioak zuri ordainaraztea. Zure joan-etorriak gero eta laburragoak izatea opa dizut, eta ahal bada behintzat, zure aita eta amaren konpainian koskortzea nahi nuke. Ez dakit handitzen zarenean zure gurasoen ekintzen detaileak garrantzitsuak irudituta zaizkizun. Askok esango dizute, lehen gertatu zen bezala orain ere, hobe izango dugula gertatutako guztia ahaztea eta aurrera begira jartzea. Hernaniko tabernariaren semeek, halere, seguruenik nahiago lukete haien aitari gertatutakoari norbaitek garrantzia ematea eta egindako kaltea onartzea. Ez dakit inoiz haiekin bizitzea tokatuko zaizun, baina hala balitz, zuen harremanak oztoporik ez edukitzea nahi nuke, eta ahal dela elkarrenganako errezelarik gabe koskortu, hazi eta elkarrekin bizi ahal izatea.

Izan ongi, Urki.



Demokrazia iritsi zenean, beste batzuek hartu zuten agintea nire gaztaroko Hernanin. Baina, berriz ere, herrian gertatzen ziren gauza askoren detaileak isilean geratu ziren. Hobe haietaz ez hitz egitea arazorik ez edukitzeko

Bakea nola eraikitzen den

Bakea behar dugu” zioen kartela jaitsi zuten urriaren 27an Bizkaiko Foru Aldundiko balkoitik behera, ETAk jarduera armatuaren behin betiko etena iragarri eta astebetara, justu-justu.

EAJ, PSE eta PPko ordezkariak pentsatu omen zuten ez dugula Bakearen aldarrikapena egiteko premiari, dagoeneko badugulako. Eta alderantzizkoa da nire irudiko: orain behar dugu asmatu nola eraikitzen den bakea, gure historian ez baitugu aurrekaririk.

Egunotan dezente mintzatzen ari da gaiaz. Bilbon mintzatu dira, bestek beste, Nour Aldin Shehada palestinarra, Andrea Leblanc estatubatuarra eta Avner Horwitz israeldarra, Sabino Arana Fundazioak ekarrita. Palestinarrak Israelen aurka jardun zuen armaz Combatants for Peace elkarteko kidea izan aurretik. Beraren arabera, gakoa da “mahai berean esertzeko gai izatea. Ondoan egon, entzun, aditu, eta bestearen lekuan jartzea, sentimenduak dituen pertsonatik pertsonara. Bestearen egia entzun, eta bestearen sufri-mendua sentitzea”. Antzeko hitzak ditu Andrea Leblanc-ek. Bere senarra Dorre Bikien aurka jo zuten bi hegazkinetako batean zihoran. Leblanc-ek dio “nahiz eta gure artean oso desberdinak izan, nahiz eta hizkuntza desberdinak hitz egin, besteen sentimenduak ulertzeko gai gara, eta horixe da baketzearen alde elkarrekin lan egitea ahalbidetzen duena”.

Bai, baina ez. Bai, hitz egin behar da, noski, baina baketzea ez da oinarritu behar sentimenduetan. Ideiari bueltak ematen nengoela Paul Rios Lokarriko koordinatzaileak esan du pentsatzen dudana: “Barkamena eskatzeak biktima behartzen du erantzutera. Eta hori ez da bidezkoa. Nik nahiago dut eragindako minaren errekonozimendua”.

Erabat ados.

“Barkamena eskatzeak” jite erlijiosoa dauka eta moralaren eremuan murgilarazten gaitu. Baina morala boteretsuak ezartzen du (Nietzsche), unean uneko legeak diktatzen ditu eta *ad hoc* egindako araudia da. Ez du zerikusirik etikarekin.

Barkamena eskatzen da araua ezarri duenaren balore-eskala bera ontzat eman eta bekatua/erredentzioa dinamika onartzen bada. Bestelako kontua litzateke etikaz mintzatzea, etika garaiko moralaren gainetik balorea baita. Etikak dio erailtzea deitoragarria dela. Beti. Moralak, aldiz, gaitzetsi dezake Guardia Zibilaren erailketa eta txalotu Bin Laden edo Muamar al Gadafi asasinatzea. Kondena dezake Mikel Zabalza hiltzea eta goratu Carrero Blanco edo Meliton Manzanasen erailketa. Moralak ideologia bati erantzuten dio, etikak ez.

Beraz, utz ditzagun barkamen-eskeak eta onar dezagun eragindako mina, horretarako nahikoa baita lekualdatze-ariketa egitea: norbera bestearen lekuan jarri eta talaia horretatik begiratu arazoari; eta, alderantziz, hurkoa norberaren lekura ekarri eta erakutsi nola ikusten diren gauzak espazio horretatik. Zintzo begiratuz gero berezkoa da arerioaren ikuspuntua ulertzea.

(UK aldizkaria, 204 zk.)



INIGO AZKONA

Laura Mintegi

»
Utz ditzagun
barkamen-eskeak
eta onar dezagun
eragindako mina,
horretarako
nahikoa baita
lekualdatze-ariketa
egitea: norbera
bestearen lekuan jarri
eta talaia horretatik
begiratu arazoari
»



Hizkuntza kudeaketa prentsaurrekoetan

Norbaitek gaztelaniaz adierazpenik behar?

Prentsaurrekoetan, euskara bazterreko hizkuntza izaten da askotan. Horrek euskara lan tresna duen hainbat kazetari kezkatu eta haserretzen du. Aitzitik, hainbat elkarte eta erakunde prentsaren aurrean euskara hutsean jarduteko beldur da, mezua behar den bezala hedatuko ez den beldur.

ZIHARA ENBEITA

Argazkia: Andoni Canellada / Argazki Press

UDA AURRETIK Martin Garitano Gipuzkoako ahalduen nagusiak eta Ana Carrere Andoaingo alkateak euskara hutsean emandako prentsaurrekoek hautsak harrotu zituzten. Zenbait egunkarik inposizioa salatu zuten. Era berean, Gipuzkoan lan egiten duen hainbat kazetariaren elebakartasuna agerian gelditu zen.

Dena dela, euskaraz egiten diren prentsaurrekoetan, *“voy a hablar en castellano para que todos nos entendamos”* eta “erdaraz ere esan beharko dut” esaldiak behin eta berriro entzuten dira. Goizalde Landabaso Radio Euskadiko kazetariak urtetan entzun ditu. Bizkaia Irratian ibili zen bere garaian eta Euskadi Irratian hamar urtez. Euskaldunok besteen arazoak gure erantzukizun lege hartzen ditugula dio Landabasok. Adierazpenak euskaraz egin eta inork eskatu gabe itzulpena egiten du euskaldunak, “baina hori ez da bidea. Besteek ez ulertzea ez da nire arazoa”. Norbaitek gaztelaniaz adierazpenik behar duen galdetzea iraingarria iruditzen zaio batzuetan. “Zuk prentsaurrekoa euskaraz eman baduzu eta norbaitek adierazpenak gaztelaniaz behar baditu, badauka ahotsa eskatzeko”. Euskaldunek, normalean, euskarazko adierazpenak eskatu egin behar izaten dituzte.

Izan ere, ohikoa alderantzizkoa da, prentsaurrekoa gaztelaniaz iza-



Prentsaurrekoak hasi eta buka euskaraz ematea arraroa da oraindik. Martin Garitano Gipuzkoako ahalduen nagusiak (argazkian) uda aurretik euskaraz egin zuen agerraldian hainbat kazetari aztoratu zen.

tea. Eta euskara, espediente batzueko erabiltzen dute askok, Iñaki Guridi Euskadi Irratiko kazetariaren esanetan. “Hitz batzuk euskaraz egiten dituzte, halamoduz irakurtzen dituztenak batzuetan, eta gero benetako mamia, guk ‘korteia’ deitzen duguna, ehuneko oso altuan erdaraz da”. Euskara, gaztelaniaz

hasi aurreko hizkuntza bihurtzen da sarri, politikoki zuzena delako egun onak, eskerrak eta ongi etorria euskaraz ematea.

Politikari erdaldunek, eta euskaldunek ere, egiten dute hori. Euskaldun izan arren, prentsaurreko “serioa” eman behar denean edo gai serio bati buruz hitz egin behar

denean, adibidez diru kontuez, ohi-koa da gaztelaniaz baino ez egitea.

Eta badira gaztelaniaz eginez gero mezua errazago eta arinago helduko dela uste dutenak. Landabasoren ustez, “euskaraz esan arren, benetan garrantzitsua bada helduko da. Azpituatuko dute edo eurak ikusiko dute zer egiten duten”. Adierazpen “potoloak” euskaraz egiteko ordua dela uste du. Itzulpenak beharko dira bai, baina erdal medioetan euskara entzungo da eta “ez da gutxi izango. Belarria ere egin beharko dute”.

Erdaldunen jarrera uzkurra aldatzen ari da

Kazetari izan gabe, komunikazio munduan dabilzan bestelako eragileek ere badute kezka. Harman Komunikazio enpresako Joseba Kamiok, adibidez, komunikazio korporatiboaren hizkuntz politika zehatza ezartzeko proposamena dakar bere blogean, eredu proposamena. Enpresa, erakunde eta elkarteek hizkuntz normalizazioan pauso bat aurrera emateko baliagarria den proposamena da, bere ustez komunikazioaren eraginkortasunaren aldetik arazorik sortzen ez duena. Zein hizkuntzatan egin prentsaurrekoak? Eta prentsa ohar-rrak? Eta prentsarako deialdiak? Eta elkarrizketak? Eta webgune eta sare sozialetan? Merchandisinga? Prentsaurreko, prentsa-ohar eta prentsa-deialdiak euskara hutsean egitearen aldekoa da Kamio eta sare sozialetan hizkuntza bakoitzak bere kanala izatea proposatzen du.

Prentsaurrekoak euskaraz egiteak erredakzioetako kazetariak elebidunak izatea eskatzen du eta askotan ez da hala izaten. Goizalde Landabasoren iritzi, erdal medioetako arduradun anitzi ez zaio bururatu ere egiten kazetari elebiduna behar duenik. Ikaragarria iruditzen

zaio XXI. mendean prentsaurreko-etara doazen kazetari gazte asko elebakarrak izatea. “Ruperrek [Ordorika] azken diskoa aurkeztu du eta seguru nago medio askok kazetari erdalduna bidali dutela”. Hizkuntzaren ezagutza, eta euskal kulturaren ezagutza, hutsaren hurrengoa izaten da maiz.

Kazetari euskaldunak oraindik hizkuntzaren militanteak dira eta irratiarako euskarazko ‘korte’ lortzeko magia egin behar izaten dute

Profesional elebidun faltarik ez dago, Kazetaritza Fakultateetatik jendetza ateratzen da urtero eta Kamioren ustez, *a priori* zailenak izan daitezkeen medioetan —euskarekiko jarreragatik eta euskal gaiak lantzeko moduagatik— aldaketak gertatzen ari dira. Bere ustez, hedabide horietan euskararekiko jarrera aldatu dute eta lehen lantzen ez ziren gaiak lantzen dira orain. Kazetariak bestelako erronkei aurre egin dieten moduan, orain ere euren lan profesionala egoera berrira egokitu beharko dutela uste du, “kazetaritzak erantzukizun sozial garrantzitsua dauka eta”.

Sentsibilizazio beharra

Hori bai, aldaketak zintzo planteatu behar direla uste du Joseba Kamiok, erronka kolektibo gisa. Soziolinguistikaren eta komunikazioaren aldetik egoki justifikatuta, hizkuntzaren normalizazioaren ikuspegitik justifikatuta, inolako norgehiagokarik gabe, eta ezer aurpegiaratu gabe. Eta hasteko gure burua serio hartuta: “Gure burua serio hartzen ez badugu, besteek ere ez gaituzte serio hartuko eta”. Normalizazio

linguistikora bidean beste pauso bat dela dio eta pauso hori emateko “ez lukete arazorik izan behar elkarte eta erakundeek, ezta erakunde publikoek ere”. Gai horrek zalan-tzak, beldurak eta noraeza sortu arren, erakunde eta elkarteek barne araudia egingo balute, hori mekanizatu egiten dela uste du Kamiok eta hortik aurrera dena errazagoa dela. Arauak adostea eta zehaztea da kontua. Elkarte eta erakundearen arabera graduak egongo lirarteke eta euskarak toki handiagoa edo txikiagoa izango luke.

Euskaldun ez direnek jarrera asko aldatu dute urteetan, baina oraindik ere sentsibilizazio falta sumatzen du Iñaki Guridik. Goizalde Landabasok uste du garrantzi gehiago ematen diotela, adibidez, ingeles hiztunari. Gainera, prentsa arduradun askok ez dute kontuan hartzen mahaian gutxienez euskaldun batek egon behar lukeela, “euskarazko ganorazko korte bat emateko”. Galdera-erantzunen tartean, halabeharrez gehien hitz egiten dutenak dira kazetari euskaldunak eta profesio kideen artean, asko hobetu den arren, oraindik ere hirugarren galdera euskaraz egiterakoan deseroso jartzen hasten dira batzuk. Edo prentsaurrekoa ematen ari dena euskaraz hasten denean txutxumutxuka.

Kazetari euskaldunak oraindik hizkuntzaren militanteak dira eta korte lortzeko magia egin behar izaten dute: gaiak gutxien dakiena elkarrizketatu euskaldun bakarra hura delako, elkarrizketatuari korte norberak idatzi... Maiz, euskaldunik ez badago, albiste luzerik egiterik ez dela izango argi utzi beharra ere bai. Hala ere, uste-kabe onak ere izaten dira, gutxien espero den lekuan euskaldunak topatzen dira. ■



EHU/UPV

UPV/EHU

30 urte irakasten eta ikertzen,
milioi laurden profesional
euskal gizartearen zerbitzura.

www.ehu.es

artearen historialariak • interpreteak • zuzendariak • gizarte langileak • epaileak • kriminologoak • gizarte hezitzaileak • biokimikariak • zaharberritzaileak • geologoak • teknologoak • politologoak • itsasariak • grabatzaileak • medikuak • arkitektoak • ingeniariak • kazetariak • erizainak • psikologoak • diseinatzaileak • ingeniari teknikoak • kimikariak • biologoak • fisikaariak • historialariak • filologoak • itzultzaileak • irakasleak • matematikariak • artistak • odontologoak • pediatriak • ekonomialariak • enpresariak • abokatuak • fiskalak • ikerlariak • pedagogok • logopedak • eskultoreak • farmazialariak • margolariak • soziologoak • geografok • topografoak • aparejadoreak • hizkuntzalariak • ziri-jauak • kardiologoak • filosofoak • antropologoak • forentseak • idazleak • publizistak...



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Mañeruko ikastetxean itxialdia

ABENDUAREN 16AN Mañeruko ikastetxea okupatuko dute. Sortzen Ikasbatuazek antolatu du udalerriko eskola hutsean itxialdia, Nafarroako zonalde ez euskalduneko gurasoak, Mañeruko Udala eta mañeruarrak ere han izango dira. Mañeruk, landa eremuko udalerriko auzo nagusiak, duela gutxi arte izan du ikastetxea, eskola publikoa. Zonalde ez euskalduneari dago ordea, zonalde mistoan dagoen Gares herriarekin muga egiten duela. Mañeruko gurasoek euskarazko irakaskuntza eskatu diote hainbat aldiz Nafarroako

Gobernuari, baina hark ezetz. Euskaraz ikasi ahal izateko herritik kanpora ateratzen dira egunero mañeruar txikiak, eta beraz, bertako eskola mantentzeko adina haurrik ez dago. Abenduaren 16, 17 eta 18an egingo duten itxialdian bi aldarrikapen egingo dituzte; batetik, landa eremuak bizirik mantentzea, alegia eskola Mañerun bertan izatea, eta bestetik, euskaraz bizitzeko eskubidea betetzea. Hiru egunetan hainbat kultur eta denbora-pasa ekitaldiz gozatzeko aukera izango da, eta era berean, aldarrikapenerako astia hartuko dute. Itxialdia ez dute antolatu egun horietan zoriz. Abenduaren 15ean Euskararen Foru Legeak 25 urte betetzen ditu eta euskarari egokitzen zaion estatus juridikoa ez diola eman salatuko dute. Mañerun, besteak beste, hizkuntza eta hezkuntzako eragileekin elkartuko dira antolatzaileak eta baita alderdi politikoekin ere. PSNk Mañerun izango dela baieztatu du.

dituen agiria kaleratu zuten. Hiru helburu nagusi azpimarratu zituzten: sektorearen estrategikotasuna eta beharra azpimarratzea, erakunde publikoei konpromiso handiago eskatzea, eta sektorearen egoera analizatu eta ondorioztatutako ildo nagusiak erakunde publikoekin aztertzeak konpromisoa hartzea. Euskarazko hedabideek otsailaren 15ean egin zuten lehenengo agerraldi publikoa. Bederatzi hilabete ondoren, sektorea kezkatuta dago. 2012. urterako aurrekontu proposamenia denetan euskarazko hedabide ez publikoei diru-laguntzak murriztea aurreikusten da. Hona adibideetako batzuk:

-Eusko Jaurlaritzak 2011n baino 400.000 euro gutxiago bideratuko ditu hedabideetan euskara sustatzeko.

-Gipuzkoako Foru Aldundiak 2011ko diru sailari eustea aurreikusten du. Aurreko bi urteetan asko jaitsi zituen diru sailak.

-Bizkaiko Foru Aldundia gorakada aurreikusten duen bakarra da: %12koa.

-Nafarroako Gobernuak 2011ko bigarren epealdiko diru-laguntzak ezabatzea proposatu du eta datorren urtean inolako laguntzarik ez ematea.

-Ipar Euskal Herrian anbizioz gabeko hizkuntza politika egiten ari direla egiten salatu dute.



Hedabideak kezkatuta

EUSKARAZKO HEDABIDE ez publikoak arduratuta daude sektoreak bizi duen egoeratik eta 2012rako erakunde publikoek iragarri dituzten diru-laguntzak ikusita ez da gutxiagorako. Joan den astean, sektoreak dituen kezka eta erakunde publikoei egindako eskariak biltzen



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

ARGITZALEN NEURRIA
Xabier Artola Zubillaga

UR ARREAK, UR GARBIAK
Joan Mari Irigoien

BIZIEN GAUBEILAN
J.M. Olaizola "Txiliku"

Heldu literaturari
www.elkarargialetxea.com **elkar**

Zorionekoak Lakuako larreetakoak

190.831 PERTSONA dira langabezian Hego Euskal Herrian, datu horiek irakurtzen ditut lerro hauek idazten ari naizen egunean. Eta bai, batek gogoratzen du nola duela bi urte lagunaren artean aipatzen zen oraindik ez zela asko sumatzen gure inguruan; gogoratzen du iaz langabeziaren mamua gure umeen eskolara iritsi zela eta guraso ezagun batzuk ukitu zituela; eta gogoetak alde batera, orain ikusten dut mamua etxe ingurura ere hurbildu izan dela, alde egin ere bai, baina hurbildu dela: "2011koa gainditu dugu, ozta-ozta baina gainditu". Eta 2012koa?

Milaka herritarren galdera da eta euskarazko hedabideetan ari gare-nok ere galdera ikur bertsuak ditugu. Duela urte batzuk "euskarazko hedabide ez publikoek" esan beharko genuen, baina gaur egun ez. EitBko langileekin soldatetan parekatzeko gure sektorearen desioak jai; orain eta hemen, 2012koarekiko askoren beldurak homologatzen gaitu.

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaitsiera gogorra izango da datorren urtean: euskarazko hedabideentzat, %15, %12, %8... badirudi kopuru horien bueltan izango direla murrizketak. Eta Jaurlaritzarenak dira euskarazko hedabideen diru-laguntza garrantzitsuenak. Beti estu

ibili denarentzat asko da, azken urteetan egoera larrian dabilenarentzat hilgarria izan liteke.

Sektorekoak bildu gara euskal gizarteko politikari eta agintariekin, urte hasieran erabaki genuen taldean bakarka baino hobeto moldatuko ginela eta horretan jardun dugu urtean zehar; eta horretan ari gara. Ez dugu eskatutakorik lortu, ezta iazko diru-laguntzei eustea ere. Gipuzkoako Diputazioan ere duela bi urte egindako murrizketa handiaren gainean (%23 oro har eta, adibidez, ARGIAK %63 gutxiago) egin dira hedabideen diru-laguntzen aurrekontuak. Bakar-rak igo ditu, Bizkaiko diputazioak.

BAINA ZORIONEKOAK gu, Lakuako larreetan bazkatzen gare-nok, Nafarroako larreetan 2012an ez dutelako ezer bazkatzekorik izango. Oraingoz bederen, euskarazko hedabideei ematen zaizkien diru-laguntzen kopuruak eza-batu egin dituzte 2012ko aurrekontuen lege proiektutik. Eta aurtengoan ere... Kontua da 2011ko diru-laguntzetan Nafarroako Gobernuak 160.000 euro esleitu zituela euskarazko hedabideentzat. 80.000 euro ekainean eman zitzaizen eta orain iragarri diete falta zaien erdiaren %35 ez zaiela banatuko. Eta oso posible da

falta den erdi horretatik ezer ez banatzea ere. Inpunitatearen goren da.

Orain arteko UPN-PSN gobernua-ren erabakiak dira, ikusiko dugu Legebiltzarretik iragatean zer gertatzen den, baina ezin da ezusteko handirik espero. Eta kontua da ea zer egin behar den Nafarroako euskarazko hedabideen egoera larrian eskua luzatzeko. Zer eskatu behar diegun EAEko instituzioei, zer herri-tarrei, zer gainerako hedabideei, zer... Eta blokeo egoera dator.

Eta batek madarikatzen du Abia-dura Handiko Trenaren proiektua lau urte atzeratu ez izana, gaur egungo egoera ekonomikoak berak akaso bidera ezina egingo lukeelako halako proiektu baten hasierarik. Eta zementuaren kulturako dirutza horiek euskarazko hedabideak bul-tzatzeke erabili ahal izango lirakeelako adibidez, edo enpresa txikien finantzazioa laguntzeko, edo ban-kuek beren etxetatik botatzen dituztenen alokairuak laguntzeko, langabezi sariak luzatzeko, hainbati jaten emateko... Horiek eta beste hainbat gauza egin ahalko lirakeke euskal lurretako AHT proiektuetan gastatuko diren 10.000 milioi euroekin. 10.000 milioi euro.





Mario Vargas Llosa
PANTALEON ETA BISITARIAK
Itzulpena: Santi Leoné



Joxean Agirre
ZWEI FRAUEN
(BI EMAKUME)



Joseba Sarrionandia
NARRAZIO GUZTIAK
(1979-1990)

Heldu literaturari
www.elkarargialetxea.com **elkar**

Itxaro Borda

AAA(H)

F

rançois Fillon frantses ministroak deklaratu du, zorra eta ongizate erdua hobesten darraitenek estatuen modernizatzeari beldurra diotela. Sarkozyren gobernuak, bistan dena, ez du lotsarik. Baina kudeatzea suertatu zaien lurraldea alferrez, iruzurgilez, ebaslez, inutielez osatua denez labana eskuan herriaren gorputz malguan sarraski odoltsuak dagizkitez, merkatuei plazer egiteko. Ez baitute AAA nota galdu nahi. Hezkuntza, zerbitzu publikoak, kultura eta osasuna sakrifikuak dira. Jendetasun harremanaren oihala iruten duten hariak alabaina.

Steve Reich minimalistak sortu WTC 9/11 obra entzuten ari naiz zutabea idatzi bitartean. New Yorkeko Dorre Bikien leherketak, terrorismo islamikoaren aurkako borrokaren aitzakian, neoliberalismoaren ahoak zabalzabalik utzi zituen. Politika alorra desertu bilakatzen ikusten dugu dagoeneko. Alderdiak merkatuen tiraniaren aitzinean belaunikatzen eta nahasten dira. Lagun batzuek ezkeraren eta eskuinaren arteko mugak uhertu direla ondoriozta dezakete, beraien bikoizkeria justifikatzeko batez ere. Politikaren denbora luzea da, eztabaidatsua, bakoitzak uste duela jakitea nondik mintzo den eta norentzat. Azken hilabeteotan merkatuak argiki demokraziaren jokoa ukatzen du estatu anitzetan. Demokraziaren ideia hazi zuen Grezian lehenik, Italian gero, Espainian eta Frantzian laster.

Atenasen eta Erroman gertatuak deigarriak zaizkigu. Hauteskunderik gabe aldatu dira gobernuak: Papandreou eta bere erreferendum xedea kanpora Papademosen faborez, Syntagma plazan; Berlusconi kalamitatsuaren lekuan Mario Monti, Forum Zaharraren hegian. Papademos, Monti eta Draghi Europar Banku Zentraleko zuzendaria, Goldman Sachs-eko arduradun ohiak dira hiruak. Parla-



DANI BLANCO

mentuek ez zuten diktatuen aurrean baiezkoa bozkatzeaz beste aukerarik izan. Oldartzen ahal ziren noski, baina ez ziren higitu, beraien ahalmenen konfiskatzea onartzen zuten, ondikotz, halabeharrez bezala, aspaldian idatzi merkatu jainko omnipotentearen lehen manamenduari men eginez.

Merkatuen iritziz gobernuak ez dira aski fite ari langileriaren eta herresteriaren “pribilegioen” suntsiketaren bidean. Egiturak modernizatzen hots, Fillonek dioenez. Helburua da enpresek eta bankuek zotz bakar bat ez dezaten gehiago xahu sozial alorrean, lana Txinako zein Errumaniako prezioan ordainduz, praktikari erretretarako dretxoa ezabatuz, osasuna norberaren gain abandonatuz eta bereziki nagusigoaren parte-hartzea egitura kolektiboetan hutsaren hurbilera borobilduz. Grezian jada baliabiderik ez duten herritar xumeak gobernuak kanpoko mediku erakundeetan atetan metatzen dira. Etikoki onargarria al da pobrezia uhin orokor hori Frankfurtetik Ostende auzoan miliarrak despendiatuz Eurotower berriak eraikitzen ari den Europa batean?

Steve Reichen melodia bukatu da. Kronos Quartetak bildu ahotsak dio: *It was not an accident...* Ez, orduetik hona gertatuak ez ziren istripuak, ekonomialariek botere politikoak gatibatzeko sakonki hausnartu taktika manipulatzailerak baino, zorraren obsesio morbidoa barne. Zehazki formatatu diskurtsoak azpimarragarriak dira: eskubideak kentzen dituzte libertatearen, berdintasunaren eta haurridetasunaren izenean, betekizun dorpeak gehitzen elkartasuna deituz eta seguritate sozialaren dinamitatzeiko Erresistentziaren Batzordeak horren sortzeko baliatu ideia berdinak deiadartzen dabilta.


Stephane Hesselek prezia-
tuko du. ■



« Helburua da enpresek eta bankuek
zotz bakar bat ez dezaten gehiago
xahu sozial alorrean, lana Txinako
zein Errumaniako prezioan ordainduz
adibidez, praktikan erretretarako
dretxoa ezabatuz, osasuna norberaren
gain abandonatuz eta bereziki
nagusigoaren parte-hartzea
egitura kolektiboetan hutsaren
hurbilera borobilduz »

ASTE HONETAKO

zozketa



Sausta jatetxea

Afaria 2 lagunentzat

Belate pasalekua 7-8, behea
Tolosa, GIPUZKOA

Tel.: 943 655 453

1



Donostiako Aquariuma

4 harpidedunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

3



Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museootetza.org

4



Pirritx, Porrotx eta Marimotots Irrien lagunak

5 DVD opari

Katxiporreta Koop.E.

www.katxiporreta.com

5

AZKEN IRABAZLEAK (2300. Argia)

TXONDORRA erretegia

- Iñaki Barañano Olealdekoa (Durango)

IRUÑEKO PLANETARIO

- Juanjo Aduriz Zabala (Errenteria)
- Jose Luis Zubiaurre Ulazia (Mendaro)
- Iñaki Mundiñano Larraza (Etxarri-Aranatz)

JORGE OTEIZA FUNDazio MUSEOA

- Maider Sanz Goikoetxea (Larraul)
- Gotzon Bedialauneta Arrizabalaga (Iruñea)
- Sabin Argarate Unzilla (Elgoibar)

NIRE AMONAREN ETXEA Txalaparta argitaletxea

- Xabier Argandoña Gutierrez (Bilbo)
- Xabier Ezpeleta Azueta (Elgeta)
- Inazio Usaralde Arantzadi (Lazkao)
- Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)
- Josu Aldama Larena (Bitoriano, Zuia)

EGUTEGIA 2012

- Juan Karlos Calleja Prada (Gasteiz)
- Pedro Azkarragaurizar Igartza (Elorrio)
- Martin Mendizabal Garai (Donostia)
- Jesus Mari Olaizola Lazkano (Zarautz)
- Kandido Agirrebaltzategi Kortabarria (Deba)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea

argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel.: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com

